



38. zenbakia / 2003 martxoak 16

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Itxas Argia. Asier Menthaka.
6. PLAZA. Galipota, Xabier Buenetxea. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, Iñigo Mirantes.
7. LEHEN ETA ORAIN. Zugazarte etorbidea.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Eskualdeko baselizak. Asier Menthaka.
26. BERBETAN. Kepa Junkera. Unai Brea.
30. ERREPORTAJEA. Galipota Uribe Kostan. U. B.

KULTURA ETA AISIA


36. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Erandioko ikastetxea.
37. MUSIKA. Konter eta Rockadelica musika taldeak
38. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta 2002ko libururik salduenak.
39. KOMUNIKAZIOA. Telebistako iragarkien prezioa.
40. NATURA. Edukiontzi beilegia eta dortoka korrontezalea.
41. MENDIA. Errekaortu eta orientazioa.
42. OSASUNA. Etxeko botikina eta antsietatea.
43. JANTZI. Jota Mas Ge, Getxoko diseinua.
44. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.

EUSKARAZ

46. URIBERTSOAN BARRENA. Josu Landetari elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
48. AKABUKO PUNTE. Mendebaleko euskera, Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
50. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO

52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan? Adibidez, Udondo jatetxean.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Getxo futbol Taldea, 1927-8. Bittor Egurrola.
58. AITORMENAK. Kike Amunarriz. Eunáte Serrano.



26 Kepa Junkera

Berbetan

Bilbon, Atxurin, egon ginen Kepa Junkeragaz. Datorren martxoaren 28 eta 29an zuzeneko diskoa grabatuko du Arriaga antzokian.



24 Eskualdeko baselizak



30 Galipota Uribe Kostan



43 Jota Mas Ge



58 Kike Amunarriz



AZALEKO IRUDIA: Josu Igartua

Izan zaitez

korrika LAGUNTZAILEA

...eta gainera aprobetxa itzazu txartelak,
Euskal Herri osoan, emango dizkizun abantailak

Onura guztiak aprobetxatu ahal izateko bete
itzazu oniak eskatzen dituen datuak eta korrika
laguntzaile txartela jasoko duzu.

**40 baino gehiago dira korrika
laguntzaileei beherapenak
eskainiko dizkietenak.**



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!!!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBI BIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunate Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETAK: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algotako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxeola, Iratxe Agirre, Edurne Ugarte, Xabier Buenetxea, Patxi Diaz, Gonzalo Iribarnegaray, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Gorka Vázquez, Mitxelko Uranga, Dogan Gozel, Iñigo Mirantes
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaideak da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



GETXOKO UDALA



Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala



Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala



Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Aurrerantzean “hamabostean behin” argitaratuko da UK

Uribe Kosta. Eskualde erdaldun samarra. Hala ere, milaka euskaldun, batzuk euskaldun berriak, beste batzuk peto-petoak, ikasten dabiltzan asko ere bai. Eta euskarazko aldizkari bat, hilabatekaria. Esku artean daukazu hau sortu dugunok gogoeta egin dugu eguneroko lanak uzten dizkigun tarteetan, eta ondorio batetara ailegatu gara: ez da nahikoa. Uribe Kostak gehiago merezi du, gure irakurleek gehiago merezi dute. Bai kalitatez bai kantitatez. Horren emaitza 2003ko otsailaren 14ko UK hau duzu, aro berri bateko lehenengoa. Txantxetan (edo ez hain txantxetan beharbada) zoratu egin garela komentatzen dugu. Tira. UK, aurrerantzean, hamabostekari.

Itxaropenez betetako proiektu berri honi ekiteko, lagun berriak hartu ditugu. Hortxe dago Jon, Getxoko eibartarra, edo Zuriñe, beti gogotsu, eta beste hainbeste, bakoitza bere neurrian etxe hau eraikitzen lagunduz. Baina zure laguntza da benetan ezinbestekoa suertatzen zaiguna; laguntza, batez ere, UK irakurriz eta ingurukoei ezagutaraziz; laguntza, baita ere, erronka honek eskatzen dituen baliabideak lortu ahal izateko. Zuen ekarpen ekonomikoa funtsezkoa izan da orain arte, eta halaxe izaten jarraituko du etorkizunean ere.


Azkenik, eskerrak eman behar dizkizuegu duela zortzi urte abiatu zen abentura honi eusten eduki duzuen partaidetzatik. Izen desberdinakaz, egoitza desberdinetan... aldizkari honen helburua beti izan zarete zuok, eta ez duzue hutsik egin. Eskerrik asko.

UK-ko lantaldea



Gure aldizkariaren bilakaera erakusten duten lau azal

goierritarrak



Santa Ageda / Urtero legez, joan den osailaren 4an euskaldunok kalera irten ginen, makil eta guzi, behinola bularrak ebaki zizkioten andrazko siziliararen omenezko koplak abestera. Ohitura horri eusten eskualdean tradizio handien duen taldeetako bat daukazue irudian: Getxoko Itxas Argia. Kalerik kale eta baserririk baserri ibiltzen dira, jantzi egokiz eta, makila ez eze, txistu eta danbolina lagun. Getxoko Andra Mari elizaren alboan egin genien agazki hau; bertan –esateko erregutu digure, mesedez– Julian Billalabeitia falta da. Hurrengoan izango da, Julian! / Argazkia: **Javier Balleador**

Leihatila

> Josu Eснаоla

Kasualitate hutsa ete?

Errealak daroan bidea ikusirik, lagun batek esandakoa etorri zait burura: kapitalismoan ezer ez da kasualitate hutsez gertatzen.

Horrela, 80ko hamarkadaren hasierara Errealak lehenengo eta Athleticek gero irabazitako ligak ez ei ziren kasualitate hutsak izan, estatuak ondo kalkulaturako egurraren eta azenarioaren politika baino. Lege Anti-terrorista, Joseba Arregiren heriotza torturaren ondorioz, Santi Brouard tiroz hiltzea, errefuxiatuen aurkako atentatuak, Lasa-Zabala... eta Erreala txapeldun. Gaur egun antzeko zerbait gertatzen ete den susmoak jota dabil laguna, ikastolak susmopean, Batasuna legez kanpo uzteko saioa, Barandalla, presoen zigorrak gogortzeko legeak... eta Erreala neguko txapeldun eta Ainhoak OT irabazi.

Beharbada lagunaren paranoia baino ez da izango, hala ere, badaezpada argi ibili. 4

Iritzia

Galipota gure kostaldea zigortzen ari da. Egoera latz honen gainean gogoeta eskatu diogu egunotan hondartzetan hegazti kaltetuak biltzen ari den Xabier Buenetxeari

Uste baino larriago




«Gogoratzen den ingurumenaren hondamendi handienetako baten aurrean gaude»

photoshop > Bizkaiko Zubia apurtu da



Manipulazioa: Iñigo Mirantes / Argazkia: Asier Menbaka



XX. mendearen hasieran



2003

Iraganez doa denbora* beti / ZUGAZARTE ETORBIDEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Xabier Buenetxea (Lanius Ornitologi Elkarte)

begizorrotz > auto euskaldunak

Gauza jakina da autoarena industria handia dela, ekonomiaren motorrik garrantzitsuena. Gurean ere, “Super López Arriortua” enpresariak Euskal Herrian egingo zen auto baten prototipoa garatzen saiatu zen, baina ez zuen lortu eta beraz auto euskaldun barik lotu ginen. Baina berdin dio, euskaldunok era batera edo bestera auto askori eman diogu izena. Behean adibide batzuk dituzue. Laguna baino izen euskaldunagorik ba al dago? Berez Azkona behar izan luke baina Ascona marka jarri zioten beste bati, euskararen normalizazioaren kontuak. ETBk eman digun telesaiorik arrakastatsuena (Goenkale) Orion grabatzen dute eta Berlingo gazte asko etortzen zaizkigu udan bisitan, batez ere Bilboko jaietara. Badira izen euskalduna duten beste auto batzuk esaterako, Renault 9 TXE... m



«Orion ezagutu nuen Berlingo laguna Ascona zen abizenez»



bazen > tranbiak ere baziren Getxon

XIX. mendean Getxoko hondartzetara gero eta bilbotar gehiago zetorrenez eta garraio eskaintza txikia zenez, Bilbo eta Avanzada artean zaldi-tranbia egitea erabaki zuten; Eusebio Garciak eta Jose eta Emiliano Amannek lortu zuten berau ustiatzeko emakida. Honela, 1876. urtean jarri zuten abian tranbia honen lehenengo. Eta urte batzuk geroago, 1881ean hain zuzen ere, Getxoko Udalak linea San Nikolas plazaraino luzatzea lortu zuen. Zenbait urtez Getxoko kaleetan zehar zaldien hotsak entzun ondoren elektrizitateak hartu zuen txanda Bilbo eta Areeta artean, 1896an hain zuzen; eta 1897an berriz, Areeta eta Algorta artean. Ondoren, trolebusa etorri zen, eta 1957an autobusa. m

Elektrizitatez bultzatutako trolebusa Getxon, 1956. (Irudia, Getxoko Liburutegiak utzia)



datua > 2.242 gramo

Etxeko postontzia ireki eta propaganda artean guri bidalitako gutunak ezin aurkitu ibiltzen da bat sarritan. Era honetako zenbat publizitate jasotzen du uribekostar batek hilean etxean? Galdera hau egin genion geure buruari. Eta ikerketa egitea erabaki genuen. Erredakzioko lankide zintzo batek abendu osoan Algortako bere etxeko postontzian jasotako propaganda guztia gorde zuen. Gero pisu gainean jartzea baino ez zen falta. Guztira: 2.242 gramo. Goiko argazkian ikusi dezakezue, egiazkoa da eta ez montajea. m



gauzak > paperontzi berriak

Getxoko kale batzuen itxura aldatzen doa eta dagoeneko ikus ditzakegu argazkikoa bezalako paperontziak, upel txiki berdeen ordez. Hasiera batean eta proba gisa, udalekoek 36 ipini zituzten Ereagako pasealekuan. Hurrengo pausua hiriguneetan egin da: 50 ezarri dituzte Areetan eta beste horrenbeste Algortan eta Erromon. Proba gainditzen ari direnez, laster hiri osoan ipiniko dituzte paperontziok. m

kale izendegia > sabino arana



Euskal Herriko herri askok Sabino Arana izeneko kaleak, plazak edo etorbi-deak dituzte, euskal nazionalismoaren aitzindarietako bat gogoratzeko. Hemen, gure eskualdean, Leioa, Berango eta Sopelan topatu ditugu Aranaren omenezko kaleak, baina uste genuen baino askoz gutxiago. Sabino Arana 1865ean jaio zen Abandoko elizatean eta 38 urte zituela hil zen. 1895. urtean EAJ alderdi politikoa sortu zuen. m

Argazkian, Sabino Arana Goiri

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 m²
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

BEROGAILU ETA ITUR -



T: 430 53

Sarrikobaso 15



Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

Monolito baten historia

Abenduan bota zuten, polemika eta guzti, San Inazio plazan 1948tik zegoen monolito **frankista**. Oroigarriaren jaiotza eta heriotza, eraikitzea eta botatzea, gogora ekarri gura izan ditugu. Tartekoa sano ezaguna da.

Bederatzi urteko lanen ostean, 1948an inauguratu zen San Inazio plazan, Udaletxearen aurrean, duela gutxi arte zutik iraun duen monolitoa. 80ko hamarkadan monolitoak zeukan sinbologia frankista kendu eta gero, iazko abenduan bota zuten, azkenik, diktadura luzearen oroigarria. Helburua, orain, plazari erabilpen egokia ematea da.

1937ko ekainaren 16an Francoren armadak Algorta “askatu” eta “Espainiari itzuli” zion, garai hartako izkribuetako esakune bitxien arabera. Urte bi geroago, 1939ko maiatzaren 10ean hain zuzen, Getxoko Udaletxeko osoko bilurak data hori ospatzeko erabakia hartu zuen; halan, ekainaren 16an, faszistak Getxora sartu eta urte bira, *“Jainkoaren eta Espainiaren alde jausitako martirien omenezko”* monolito baten lehen harria ipini zen.

Izan ere, orduko alkateak, Salvador Basagoitik, harritzarra 1939an bertan inauguratu gura zuen, baina ezinezkoa izan zen. Azkenik, 1948an inauguratu zen. Horretarako, bederatzi urte lehenago-ko data esanguratsua aukeratu zuen oster bere. Ekainaren 16a, alegia.

83an “biluztu” zuten

Francok denbora luzea zeraman kanpo-santuan Getxoko Udalak monolitoko sinbologia faszista kentzea erabaki zuenean. Hain zuzen, uztarri eta gezi ezagunak eta gerran hildakoen izenak (Francoren alde hildakoenak, noski) biltzen zituen plaka.



Goian, San Inazio plaza gerra aurretik. Behean, monolitoaren inaugurazioa, 1948an.

1983an gertatu zen hori.

Iaz monolitoa botatzeko erabakia hartu zen, baina neurriak hasarre asko piztu zituen herriko hainbat sektoretan. PPK eta zenbait hiritarrek oroigarria bertan uzteko eskatu zuten, ordutik aurrera ETA-ren biktimen omenezko sinbolo modura.


«1937ko ekainaren 16an Algorta hartu zuten frankistek»

Guztira, 2400 sinadura jaso zituen Udaletxeak, monolitoa bota ez zezaten eskatuz. Azkenik, baina, abenduaren 2an bota zuten. Asmoa, orain, lekua egokitzea da. Udaletxeak adierazi duenez, *“monolitoak espazioa behar bezala erabiltzea galarazten zuen, horregatik bota da”*. m



Karibeko erritmoak Getxon

Hango dantzak **ikasteko aukera** egunero



Juan Carlos Cano ikasleei dantza eskolak ematen

2001eko abenduan zabaldu zen Getxon “Centro Promotor de la Cultura Caribeña” izeneko topagunea, Karibeko adierazpen artistiko guztiak (dantza, musika, antzerkia, etab.) Euskal Herrira hurbiltzeko helburuarekin.

Juan Carlos Cano kubatar dantzari eta koreografoa bertoko zuzendaria da eta betidanik izan du horrelako zentro bat egiteko ametsa. Cano orain bi urte etorri zen Bizkaira; lehen, bere talde artistikoa zuzentzen zuen Habanan.

Ilenetik domeka arte eta goizeko 10-

etatik gaueko 10ak arte egoten dira zabalik Karibeko txoko honen ateak. Sei irakasle dabilta eskolak ematen adin guztietako 200en bat ikasleei. *“Zur eta lur gelditu naiz. Gainera, lagun elkarte bat eta bost bikote sortu dira hemen”*, diosku Juan Carlos Canok.

Besteak beste, tangoa, aretoko dantzak, flamenkoa eta Karibeko dantzak (salsa, boleroa, manboa, etab.) ikas daitezke zentro honetan, Karibeko kulturaz eta erritmoaz blai egiteaz gain. m

Harremanetarako: 94 430 21 77

AGATE DEUNA EGUNEKO ABESTIEN OIHARTZUNA

Otsailaren 4an Euskal Herriko hainbat kale eta plaza Agate Deunaren omenezko kantak abestu zituzten ehundaka taldez bete ziren. Tradizioari eutsiz, XVII. Koru Jaialdia egin zen Getxon eta egun guztian zehar Erromo-Areeta eta Algorta-Andra Mari auzoek osatzen dituzten ibilbideak bete zituzten koruek. Aurtengo edizioan, ikastetxeetako 20 talde baino gehiago eta 23 koru (helduak zein mistoak) ibili ziren makilez lagundurik kantatzen eta kaleko giro hotza alaitzen.



EUSKAL DANTZAK ETA KANTUAK ESKOLETAN

Aurton bere, Getxoko Udaletxeak euskal dantza eta kantu klaseak eskaintzen ditu eskoletan. Dantzaren kasuan, hirugarren urtea da eta kantuenean, bigarrena. Guztira, 1.694 umek parte hartzen dute eskoletan. Horietatik, 1.025ek dantzan eta 669k kantuan. Dantza ikasten dutenak sei eta urte hamabi urte bitarteko umeak dira; kantuan aritzen direnak, berriz, hamaika eta hamabi urtekoak.

cianoplan s.a.
global printers


Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Mario Pardo > aktorea

“Gaur egun alkohola eta aisialdia lotuta doaz gazteen artean”



Argazkian, Gotzon Zulueta alkoholaren kontra egin den azken kanpainaren kartelen aurrean

Behin “Gotzon Drogas” goitizena ipini zioten drogomenpekotasunen prebentzioan aritzen zelako. Harrezkeroztik horrela deitzen diote lanean. Erdi bilbotartzat erdi bermeotartzat du bere burua 45 urteko mediku honek, baina ia 12 urte daramatza Getxoko Udaleko Gizarte Ongizateko sailean lan egiten. Gotzon lankidetzaz eta Gobernuaz Kanpoko Elkarteei dagozkien gaiez ere arduratzen da 1994. urtetik.

—Nola erantzun zenuen “Gotzon Drogas” deitu zizuten lehen aldian?
—Estreinakoz entzun nuenean oso gustora hartu nuen goitizen hori, guztiz maitakorra delako eta gainera jendeak erreferente gisa hartu duelako. Nire karguaren izena hain luzea denez, norbaitek nigaz berba egin gura badu, “Gotzon Drogas”-ez galdetzen du eta udalean denek dakite nortaz ari den galdezka.
—Dena den, elkarkidetzaren mundua ere jorratzen duzu, ezta?
—Bai. Horrexegatik beste batzuek udalean “Gotzon Saharas” deitzen didate, nire

lanaren beste atal garrantzitsua da eta.
—Noiz sortu zen prebentzio sail hau?
—1988an, drogomenpekotasunen lehen legea onartu zenean, hain zuzen ere. Ordura arte lana asistentziala izaten zen beti eta heroina puri-purian zegoen. Emaitzak nahiko murriztak zirela eta kontua puztuz zihoala ikusita, prebentziora joatea erabaki zen, udalerria oinarritzat hartuz.
—Zenbat zineten hasierako garai haietan?
—Orduan 18 lan-talde sortu ziren. Gaur egun 60 bat gara, herriak eta mankomunitateak barne, eta hainbat jende topa

dezakezu lan-taldeetan: sikologoak, pedagogoak, gizarte laguntzaileak...
—Non kokatzen da zuen lana?
—Ikastetxeetan gehien bat. Nolabait esateko, gure eginkizuna hiruki batean kokatzen da, ikasleek, irakasleek eta gurasoek osatzen dutena, hain zuzen ere.
—Zeintzuk dira drogarekin dauden arazorik larrienak eskualdean?
—Duda barik, alkoholarena. Azken datuek adierazi digute 16-25 urteko bitarte horretan %68k edaten duela.
—Zergatik aurkitzen da portaera hori gazteengan?
—Alkohola oso finkatuta dagoelako gure kulturan. Azken finean, edatea eta aisialdia lotuta doaz, eta ez da ikusten beste modurik ondo pasatzeko. Ni hor sartuko nintzateke buru belarri, gazte politika baten barruan. Mahai gaineen ipini behar da gaia, hau da, aisialdia zelan erabili era zintzo edo zuzen batean, ezer ez dagoenean jendeak errazenera jotzen du eta.
—Istorio gogorrek ikusi eta entzun beharko dituzu ia egunero. Non dago ordaina?
—Denetik dago. Esaterako, ikastetxeekin lan egitea oso atsegina izaten da. Dena den, inoiz ez dut konpentsaziorik espero, eguneroko lana ahalik eta hoberen betetzea baizik. m

KANPAINAK

- 1992an oihartzun handia izan zuen “**Alkoholadun gorputzak**” izeneko lehen kanpainak.
- 1996an “**Alkholez polito**” leloa zeraman laugarren kanpaina atera zen, oraingoz azkena.



Hilaren 22an dantza-antzerkia, herriko Organik konpainiaren eskutik

Organik dantza-antzerkia

Otsailaren 22an *Tú o yo* lana aurkeztuko dute

Organik getxoztar taldeak dantza garaikidea eta antzerkia uztartzen ditu bere lanetan. Iazko udan egin zuten lehenengo agerpena, Tellagorri-BI kale antzezlanaz. Orain, eszenatokitako prestatu duten *Tú o yo* dakarkigute; otsailaren 22an estreinatuko da, Getxo Antzokian eta arratsaldeko 8etan.
Hainbat lagun ibili da Organikaren beraren sorreratik. *Tú o yo*-ren kasuan, hiru izango dira partehartzaileak: Natalia Monge koreografo eta dantzaria, Jon Urraza aktorea eta Helena Golab dantzaria. Lehen biak algortarrak dira, Helena,

berriz, poloniarra. Antzezlanak Raisa Hornillos plentziar idazlearen testu batean dauka oinarria eta musika Ernesto Maestro getxoztarrak egin du.
Berba barik
Hasikeran lanak berbak izan behar zituen baina, azken orduan, kentzea erabaki zuten Organik-ekoek. Edozelan, adierazi gura dutena berdin-berdin adieraziko dutela esan dute. Irauten duen ordubetean, pertsona guztion barruan dagoen bikoiztasunari buruzko hausnarketa taularatu gura du *Tú o yo*-k. m

OTSAILAREN 14AN “MUNDOPOLSKI: ERREBOLTAREN ZIABOGA” EUSKARAZKO ANTZEZLANA IKUSGAI

Antzerkiola Imaginarioa konpainiak “Mundopolski: erreboltaren ziaboga” antzezlan abangoardista taularatuko du Getxo Antzokian, otsailaren 14an eta arratsaldeko 8etan. Unai Garate erromotarrak eta Jon Gerediaga algortarrak idatzitako lan honek pailazo trotskista baten eta neska iraultzaile baten gorabeheren berri ematen digu. Lekua, Poloniako komun bat.
“Mundopolski: erreboltaren ziaboga”-k urtebete baino gehiago daroa dagoeneko Euskal Herri osoko eszenatokietan. Uribe Kostan lehen emanaldia –eta bakarra oraingoz– iazko urrian egin zuten, EHUKo Leioako campusean. Orain Getxon egongo da ikusgai etsipenaz eta desilusioaz, bai eta alaitasunaz eta umoreaz ere diharduen obra hau.

Na Gomes aktorea





ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

“Ikuspuntu” desberdinak herria hobeto ezagutzeko

Leioako zazpi ikastetxeetako ehundaka ikasle “Ikuspuntu” izeneko programan parte hartzen ari dira, euren herria hobeto ezagutzeko eta bere garapenerako ideak emateko. Helburu horiek betetzeko, bost sailetan banatuta dauden hainbat ekitaldi antolatu dituzte Solasgune elkarteak eta Udalak.

Lehen atalak programaren izen bera du eta partaide diren ikastetxeetan burutzen da. Bigarrenak, berriz, “Trukatu Leioa” du izena eta ikasleek eurena ez den ikastetxe batean egun bat pasatuko dute haren bitar-



tez. Hirugarrena, “Kutxatu” izenekoak, hiru domekatan eta martitzen-inauterian ospatuko da. Laugarrena, “Aditu Leioa”, martxoaren 21ean izango da eta gurasoek, umeek eta dendariak parte hartuko dute “*Leioa gauaz eta argi barik entzuteko asmoarekin*”, antolatzaileen berbetan. Azkenik, maiatzaren 10ean antolatuko den jaialdi handi batez amaitutzat emango da “Ikuspuntu” egitaraua. m



Argazkian, klubeko irristari gehienak

Irristan kirol eginez Leioako Irristaketa Taldea arrakastatsu dabil gurpil gaineko patinajea

Izotz gainean irristatzea oso kirol ezaguna da. Ez hainbeste, ordea, honen “anaia txikia”, gurpil gainekoa, oinarrian antzekoak izan arren. Leioako Irristaketa Taldea bigarren horretan aritzen da 1994tik, eta gero eta sendoago dabil. Iñaki Iglesias presidentea azaldu digunez, “*EAE mailako txapelketetan hasi ginen. Apurka, maila igo genuen, eta iaz Espainiako txapelketan egon ginen, Reusen*”.

Irristaketa taldeak oso maila duina eman zuen Reusen: “*Kirol honetako erre-*

ferentea gara Euskal Herria osoan”, dio Iglesiasek. Euskadiko txapelduna ere bertan dabil. 22 urteko neska da, eta bera da klubean dabiltzan 26 irristarietan zaharrena. Gazteenek zortzina urte dauzkate. m

«**Kirol honetako
erreferente nagusia gara
Euskal Herri osoan**»



Ateak zabalik

Edonor joan daiteke gurpil gaineko irristaketan aritzera. Irristaketa Taldeak Kandelazubieta polikiroldegian entrenatzen du, martitzen eta eguenetan arratsaldeko 6etatik 8etara eta domeka arrasti osoan.

Harremanetarako:
94 401 34 97 / 605 723 556

Pertsonaia > Andrés Bilbao

“Ni bat gehiago naiz, beste barik”



Argazkian, Andrés Bilbao, saltsa guztietako perrexila

Andrés Bilbao jaiotzez getxoztarra izan arren (duela 20 urte bizi da Leioan), oso ezaguna da herrian. Udondo tabernako barraren atzealdean emandako 17 urteak ez ziren, ez, alperrekoak izan! “*Emazteak eta biok egiten genuen behar, ordu asko hemen sartuta, umeak aurrera ateratzea behar ziren-eta*”. Beharbada Leioa osoan osperik handiena daukan tabernan aritzeagatik ez eze, hamaika saltsatan ibiltzeagatik ere ezaguna da Andrés. Ailegatu eta gutxira, Agate Deunako kantutradizionalak berreskuratzeko lanean lagundu zuen, eta oraindik jarrait-

zen du horretan. Gainera, Udondo auzoko jaietako antolatzaileetako bat da. Dena dela, gauza bat azpimarratu gura du: “*Ni bat gehiago naiz, beste barik*”.

Tiro zelaiko presidentea izateak ere jaietan sortutako arazo baten izan zuen jatorria: “*Jaietan plater-tiraldia antolatzeko genuen, baina toki desegoki batean*”. Azkenean, gaur egungo tiro zelaia sortzea erabaki zen eta Andrés bera da presidentea. Apurka, garrantzi handia lortu zuen zelaia, Estatuko iparraldeko garrantzitsuen izatera ailegatu arte, beraren esanetan. m



HORMETARA IGOTZEN

Otsailaren 15ean, Leioako Bigarren Boulder Masterra egingo da Sakoneta Kiroldegian. Goizez eta arratsaldez jokatu dira gizonen zein emakumezkoen probak. Iazko edizioan 25 lagunek parte hartu zuten; aurtengoan lehiakideak zailtasun goreneko lau horma gainditu beharko dituzte sailkatzeko. Azken proba pasatzea lortzen dutenek, berriz, zenbait ibilbide burutu beharko dituzte.



etorri
eta
ikusi!!


ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



**VILLABOTAS
JATETXEA**



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA



amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

Erandio txiki geratu zaio

New York-eko maratoiaren ostean, Saharako erdi maratoian hartuko du parte laster **Jon Salvadorrek**

Hamalau zapatila edo ditu, entrenamenduetan 100 kilometro egiten ditu gutxie-nez astero, hamaika lasterketa irabazi du eta New York-eko maratoian gozatzea eta sufritzea zer den ere badaki. Jon Salvador korrikalari erandioztarraren markak dira hauek guztiak, baina ez bakarrik. Hemeretzi urte zituela ekin zion lasterka egiteari. Harrezkero (36 urte bete ditu dagoeneko) bere etxeko txoko guztiak txapel eta garaikurrez apainduz joan da. Soil-soilik azken bi hilabeteotan, esaterako, Bilboko Osasun lasterketan, Bilboko San Silvestre lasterketan, Amurrioko Isoria Krosean eta Mungiako krosean gailendu da Jon. *“Gustuko dut irabaztea, baina bigarren, bosgarren edo hamaikagarren helmugaratzea ere berdin dit, kontua lasterka egitea baita; horixe nahi dut nik, lasterka egin”*, dio. Hurrengo erronka Saharan izango du, otsailaren 22tik 28ra bitartean. Maratoi erdian hartuko du parte, eta berezia izan-



Argazkian, Jon Salvador

«New York-eko maratoian 59. postuan sailkatu zen korrikolari erandioztarra»

go da berarentzat bi arrazoiengatik. Batetik, lasterketaren ezaugarri orografikoak eta baldintza klimatologikoak oso gogorak izango dira; izan ere, harezko bideak izateaz gain, baliteke lasterketa zero gradu inguruko tenperaturan hasi eta, amaieran 40tan egotea.

Bestetik, lasterketa berezia izango da herri sahararrarekiko elkartasunezko proba delako. *“Erandioko Udalaren babesa izango dut parte hartu ahal izateko. Udalak Saharako herriari elkartasuna adierazi dio-nez, laguntza emango dit han lasterka egiteko”*, azaldu digu. Azken lau, hilabeteotan egiten duen nazioarteko bigarren proba izango da berarentzat. Azaroaren 3an New York-eko maratoian izan zen beste 32.000 maratolariarekin batera, eta 59. postuan sailkatu zen. *“Itzela izan zen. Ibilbide osoan bide ertzak jendez gainezka zeuden, txaloka. Gozatzekoa da, benetan, eta bueltatuko naiz, baina ez marka ona lortzeko, gozatzeko baizik. Bai horixe”*. Markak marka eta garaipenak garai-pen, Jon Salvadorrek oso argi du bera bezalako korrikalarien eta goi mailakoen artean alde handia dagoela. *“Batzuetan pentsatzen dugu hurbil gaudela, baina ez da egia. Nolabaiteko arrakasta lortu baldin badut irmotasunagatik izan da. Astero 100 - 160 kilometro korrituz entrenatzen naiz.”* **«Astero 160 kilometro korrituz entrenatzen da Jon Salvador»**

Pertsonaia > M. Jose Gogenola

“Nire kordoi eta kandelak Don Nikolasek bedeinkatzen ditu”

Otsailaren 2an, Kandelaria egunean M^a Jose Gogenolarekin egon gara metro geltokiaren aurrean. Egunotan San Blas kordioak, Mendaroko erroskilak, Begoñako Andra Mariren gozokiak, Santiagitoak eta dozenakako santu irudiak saltzen ditu. Urtero bezala, bere toldoan.

—Noiz hasi zinen salmenta honekin? Familatik datorkit eta txiki-txikitatik nabil honetan. Badira 35 urte. —**Gaur zer duzu salgai?** Gaur otsailaren 2a eta bihar 3a, Kandelaria eguna eta San Blas eguna ospatzen ditugu. Egun horietan ohitura da kandelak piztea eta lepo inguruan kordioa lotzea. Fededunok ohiturei eutsi nahi diegu eta ohitura mantentzeko ezinbestekoak dira hemen salgai ditudan gauzak. —**35 urte hauetan asko aldatu da giroa?** Bai, jakina. Oraintxe jende gutxiago hurbiltzen da eta beraz, kordio eta kanela gutxiago saltzen ditugu. Adineko jendeak ohiturari eusten dio, gazteek berriz ez. Galera honen ardura eliza berari leporatzen diot nik, antzinako sinesmenak mesprezatzen dituelako. San Blas eta Kandelari egunetako kordio eta kandelak adibidez, ez ditu alde aurretik bedeinkatu nahi.



—**Baina zureak bedeinkatuak daudela diozu?** Ahalegin guztiak eginez lortu dut. Don Nikolasek, Erandioko parrokoa izan zenak, nire kordio eta kanela guztiak bedeinkatu ditu. Fededunei bedeinkatu gabeko kordio edo kandelaren bat salduko banie iruzurretan nenbilke. Nik sinesten dut. —**Eta sinesmen zaharrak zer dio?** Jendeak uste du San Blas kordioa lepoan lotuz gero eztarriko min eta gaixotasunengandik babestuko dituela. Kordioa hilabete osoa eraman behar da lepoan *Hausterre-eguna* arte, eta orduan erre. Kordioaren errautsaz gurutzearena egitea ere komeni da.

[erandio]

HAIZEAK ALTZAGA IKASTOLAKO ESTALKI BERRIA SUNTSITU ZUEN

Urtarrilaren 20ko haizeteak bere lana egin zuen gure artean ere. Beheko argazkian ikusten duzuen moduan utzi zuen Altzaga Ikastolako estalki berria. Eraikuntza berriarekin Altzaga Ikastolak estalitako 800 m² gehiago irabazi zituen. Ikastolaren leku arazo guztien konponbidea ekarriko ez bazuen ere, estalki berria lagungarri izango zen jolasaldietan eta eguerdiko orduetan dagoen ume pilaketa arintzeko. Baina Kukularra aldean haizeak gogor jotzen duela jakina izan arren, estalkia egiterakoan, antza, ez zuten kontuan hartu auzoaren ezaugarri hori. Zorionez ez zuen gainerako kalterik ekarri, ez, baina ikastolakoek, esandakoaren arabera, benetako arriskua ikusi zuten.



KURKUDI
LIBURUDENDA

Euskarazko irakurgaiak

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

altzaga ikastola erandio bhi

HAUR HEZKUNTZA (2-6)	Garraioa eta jantokia Eskolaz kanpoko ekintzak
LEHEN HEZKUNTZA (6-12)	
BIGARREN HEZKUNTZA (12-16)	

Kukularra bidea, 8 • Tel.HH-LH: 94 467 17 05 • DBH: 94 467 15 13 • Faxe 94 467 09 36 • 48950 ERANDIO

Euskara txinoa bada zuretzat,
Si el Euskera te suena a chino,

Ni txinin, tximin, txirindulo, duloi.

UDAL EUSKALTEGIAK...

Ni txirinduan nobil.

...y el euskera te sonará bien.
...eta euskara zurea egingo duzu.

Euskara ikastaroak

2002/2003

IRAILA - EKAINA / SEPTIEMBRE - JUNIO

MAILA GUZTIAK / TODOS LOS NIVELES 16 urtetik 99 bitartean / De 16 a 99 años

IKASTARO ETA MODULO BEREZIAK EGA / HIZKUNTZA

Egin ezazu zure matrikula!

HORARIO / ORDUTEGIA Mañanas, tardes y noche / Goizez, -arratsal

CLASES en IES Astrabudua y Bekoa Ikastetxea

ERANDIOKO? UDAL? EUSKALTEGIA

Bekoa Ikastetxea, Desanexión kalea, 4 beheko solairua
Tel.: 94 467 60 75
erandio.eusk@euskalnet.net / www.udaleuskaltegiak.net

Sopelako gauak

otsailaren 8tik
maiatzaren 21era

Bigarren urtez egingo den ekimen hau 15 eta 20 urte arteko gazteei dago zuzenduta eta abian dago dagoeneko. Guztira 30 ekitaldi prestatu dituzte: malabarismoak, tatuajeak, magia, aerobika, esgrima eta dantzak ikas ditzakete, bai eta interneten ibili ere. “Sopelako gauak” egitasmoak 16.720 euroko aurrekontua du eta herriko kultur etxean eta pilotalekuan egingo da zapatuero, gaueko 10etatik goizeko ordu-bata arte. Iaz 150 gaztek hartu zuen parte jardunaldi bakoitzean eta aurten kopuru hori gaingitzea espero dute udalekoek. ^m



UDALAK TELEFONO ZENBAKI BERRIAK DITU

Udaleko zerbitzuagaz hartu-eman zuzena eta arinagoa izateko, sopeloztarrek ondoko zenbakietara deitu behar dute hemendik aurrera:

- Telefono orokorra: 94 406 55 00
- Alkatetza: 94 406 55 01
- Idazkaritza: 94 406 55 02
- Faxe: 94 406 55 10
- Udaltzaingoa: 94 406 55 11



Bull terrier arrazako txakurrak erroldan sartu beharko dira

Txakurrak kontrolpean

Animalia hauen **errolda gaurkotzen** ari dira eta **arriskutsuenek lizentzia** behar izango dute

Indarrean dauden arauak betetzeko, Sopelako Udalak kanpaina bati ekin dio biztanleek dituzten txakurren errolda eguneratzeko, azkenekoa 1995ekoa da eta. Horretarako, txakurren ugazabek (duten animaliaaren arraza edozein dela) Udaleko bulegoetara joan behar dute.

Bestalde, arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek lizentzia bat eskatu behar dute derrigorrez. Atal honetan, pitbull terrier, staffordshire bull terrier, american staffordshire terrier, rottweiler, tosa inu eta akita inu izeneko arrazak daude, besteak beste. Mota horietako txakurrak dauzkate-

nei 120.000 euroko gutxieneko babesa eskaintzen duen aseguru-poliza eskatzen zaie, hainbat agiriren artean.

«Udalak egin zuen azken txakurren errolda 1995ekoa da»

Lizentzia lortu ondoren, ugazabek 15 egun dute arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak udal erregistroan izena emateko. ^m



Zigorrak

- Txakurra aske utzi, muturreko barik eduki edo lotuta ez eramateagatik: **300 eurotik 2.400 eurora** bitarteko isuna.
- Lizentzia barik edukitzeagatik: **2.400 eurotik 15.000 eurora** bitarteko isuna.

Pertsonaia > Txato

Gorputz txikia, bihotz handia, lan isila



Nork ez du Sopelan Txato ezagutzen?

Jose Antonio Olea Torrontegi izen-abizenek ez dute esangura handirik izango zuetako askorentzat. Txato ezizena, aldiz, beste kontu bat da. Esan daiteke dagoeneko Sopelako paisaian ezinbestekoa dela jaiotzez gormutua den gizon txiki baina bihotz handiko honen presentzia. Eta ez bakarrik Sopelan; Berangon ere guztiz ezaguna da, han egiten du-eta behar, ONCEko kupoi saltzaile modura. Maxi Eroskiko korridorean ikusiko duzue gehien bat, baina kaletik ere ibiltzen da. Berak dienez, “asko” saltzen du.

Ez da erraza izan Txatorekin elkar-irizketa egitea. Halan eta guzti ere primeran hartu gaitu eta, keinuz edo beselako moduz, bere bizitzari buruzko hainbat datu emateko gauza izan da.

Betiko sopeloztarra

32 urte dauzka, eta oso-osorik Sopelan igaro ditu. Kupoi saltzen ere mordotxo bat daroaz, bera ere ez da akordatzen zenbat, baina hamar-edo izan litezke, eta lehenago arotz modura ibili zen Asuan. Zelan edo halan adierazi digunez, zeozer ikasi ei zuen horri buruz. ^m



THE BEATLES GOGOAN

Kultur Etxea omenaldia egiten ari zaie 60ko hamarkadan musikaren mundua irauli zuten The Beatles taldeko mutilei. Urtarrilean hasi ziren ekitaldiak eta martxoa arte iraungo dute. Datozen egunotan, adibidez, Yellow Submarine filma emango dute jatorrizko bertsioan (otsailaren 21ean), eta baita Mucho Tiempo Sin Ellos ordubeteko dokumentala ere (26an). Gainera, martxoaren 31 arte liverpooldar gazte ospetsuei buruzko erakusketa egongo da ikusgai.

[sopela]

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

4 bide
pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

LALIAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela

Tlf. 94.6760328

Loteria
Sopela

Iparragirre 6, Sopela

GOIZEAN



Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Trikuharrien ibilbidea

bigarren fasea amaituta dago

Trikuharrien ibilbidea egokitzen ari dira eta dagoeneko euren benetako neurria ikus daiteke. Monumentuok estaltzen zizutzen zuhaitzak eta sasiak kendu dituzte orain gutxi, baita ingurua garbitu ere. Horrela, dolmenen ibilbidea sortzeko proiektuaren bigarren zatia amaitu da.

Egindako lanen bitartez, trikuharriak lehengoratu gura izan dute, *“herritarrek aspalditik eskatzen zutenari erantzuna emanaz”*, proiektuaren arduradunen berbetan. Fernando Bazeta eta Juan Carlos López Quintana arkeologoek Munarrikolanda I, Munarrikolanda III eta M2 izeneko dolmenetan egin dituzte lanak.

Trikuharrien ibilbidea atontzeko proiektuak hirugarren fase bat dauka, hau da, oinezkoentzako pasealekua egitea, bertoko paisaia ederraz gozatzeko. Horretaz gainera eta geroari begira, ez dute baztertu *“Uribe Kostan antzeko bideak egokitzea, bide horietatik eskualdeko herriak lotzeko asmoz: Urduliz, Sopela, Leioa eta Erandio”*. m

Inguru honetan trikuharri askoren arrastoak daude



Bidegurutze honen inguruan arazoak egoten dira egunero

Berangon ere gunee “beltzak”

Herriko hainbat lekutan gura baino sarriago sortzen dira trafiko arazoak

Udal iturriakaz berba egin dugu Berangon trafikoak dauzkan arazo nagusien gainean. Antza, istripu gehien egoten diren lekuak Lantzarteko urteera, Eroskiren parean dagoen sasierrotonda eta Karabiganeko urteera dira. Hiruretan istripuen arrazoiak berdina da: lehenetasun-arauak ez errespetatzea.

Istripu lar egoten ez badira ere, badaude buruhauste ugari sortarazten dituzten beste gunee batzuk. Herriko udalt-

zain batek adierazi digunez, *“eskolako atearen parean egunero egoten da arazoren bat ume bila doazen gurasoen kotxeakaz, txarto uzten dituzte-eta”*. Baina batez ere goiko irudian ikus dezakezuen bidegurutzean egoten dira ika-mikak. Inguruko tabernetara jeneroa eroaten doazen kotxe edo kamioiak geldirik dauden orduan –gehienetan, goizetan– arrisku egoerak sortzen dira, askoz leku gutxiago egoten da-eta autoak igarotzeko. m



ALKOHOLA, PORROAK... ETA BESTE

Urtarrilaren 31n mahaingurua egin zen Santa Anan, “Alcohol y porros” izenburu ezin grafikoagoagaz, 14 eta 18 urte bitartekoei zuzenduta. Guillermo Canales teknikariaren eskutik, gazteei droga horien eta beste batzuen -diseinuzko droga modernoek ere berba egin zen- ezaugarriak azaldu zitzaizkien. Kultur Etxeak gazteentzako beste hitzaldi batzuk emateko asmoa dauka, baina oraindik ez dago zehaztuta zeintzuk.

FOTO ZAHARRA

Herria orain ia 30 urte



1972KO MAIATZAREN 26AN egindako argazki honetan ikus daitekeena, gezurra dirudien arren, Berango da. Edo Berango zen, hobeto esateko. Eskerrak eliza eta udaletxea gutxi aldatu diren! Bestela, ez genuke argazki honetako herria ezagutuko. Non daude orain elizaren eta Sabino Arana kalearen arteko belardiak? Denborak eroan zituen.

UDAN OSPATUKO DU OTXANDATEGI TALDEAK 60. URTEURRENA

Aurton 60 urte beteko dituela-eta, Simon Otxandategi dantza taldea ospakizuna prestatzen dabil datorren udarako. Besteak beste, Europara egindako bidaetan ezagututako taldeak gonbidatu dituzte; holan, abuztuko bigarren astean Belgika, Katalunia, Alemania, Austria eta Holandako 250en bat dantzari eta musikari etorriko direla iragarri dute taldeko arduradunek. Gainera, taldea sortu zenetik bertan aritu direnek ere ospakizunean parte hartzea gura dute Otxandategikoek. Bost egunez, beraz, Euskal Herriko eta atzerriko dantzak ikusteko modua egongo da Berangon.

Taldearen aspaldiko argazki bat



aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA
20º ANIVERSARIO
URTEURRENA



KLIMATIZAZIO
INGENIAIRTZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

Inportaziozko
zerbezaritza
onenak

Terraza
zabala



basartena

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ



Taberna Bern

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

udondo
taberna
eguneko eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

krimea



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82
AREETA

[herriak]

BARRIKA

Omenaldia Aita Gotzoni




Aita Gotzon (erdian, umearen atzean) lagunez inguratutik

SAN BLAS egunean -Barrikako egun handian- 33 urtez Barrikako abade izandako Angel Lizaur “Aita Gotzon”eri omenaldia egin zioten herrian, Udaletxeak antolatutako ekitaldi batean. Besteak beste, beraren omenezko aureskua dantzatu zen, eta Udaletxeak oroigarria eman zion. Irudian, omenaldiaren une bat.

GORLIZ

Herriak badauka bandera berria



Urtarrilean onartu zuen Gorlizko Udaletxeak herriko bandera berritzat irudian ikusten duzuen aukeratzea. Enkarguz eginda dago, eta beraren koloreek udalerriaren iraganagaz lotura handia daukate. Hirukiak Gorlizko badia adierazi gura du; gurutzeak, berriz, aurreliza, udal iturriek azaldu dutenez. m

PLENTZIA

Gasolio isurketa dela eta...

Urtarrilaren 23an Butroe ibaira isuri zen 2.000 litro gasolioak oraindik zeresana ematen jarraitzen du. Handik hiru egunera, garbitu zutenek isurketa kontrolpean zegoela adierazi zuten.

Hala ere, “*otsailaren hasieran erregai arrastoak ikusi genituen portuan, hainbeste-ko kiratsa botatzen ez zuten arren*”, Txipio

Bai naturaren aldeko elkarteak dioskunez. Udalaren jarrera ere salatu du, “*ez zuelako ganiiz jardun*”.

Angel Maruri alkateordeak, berriz, kritika honi erantzun dio “*Txipio Baiakoak ez datoz languntzera hesia ipintzeko eta konpontzeko*”esanez. Gainera, boluntario gutxi daudela esan du Marurik. m

[agenda]

Otsailak 14-27

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ANTZERKIA

GETXO

- **Mundopolski: Erreboltaren Ziaboga.** Getxo Antzokian. Otsailak 14, barikua (euskaraz) eta otsailak 15, zapatua (gaztelaniaz). Biak 20:00etan. *Antzerkiola Imaginarioaren* eskutik.
- **Tú o Yo** dantza-antzerki emanaldia. Getxo Antzokian. Otsailak 22, zapatua. 20:00etan. *Organik* konpainiaren eskutik.
- **La Seta.** Algortako Bost tabernan. Otsailak 18, martitzena. 21:30etan. *Oliver Productions*-en eskutik.
- **Las Aventuras de Tete y Maripi.** Algortako Viejo Café-n. Otsailak 19, eguaztena. 21:30etan. *Oliver Productions*.
- **Los Babiosos.** Algortako Satistegi tabernan. Otsailak 20, eguena. 21:30etan. *Oliver Productions*.
- **Las Aventuras de Tete y Maripi.** Erromoko Tropicana-n. Otsailak 20, eguena. 21:30etan. *Oliver Productions*.
- **Perdidos en la Miel.** Algortako Bost tabernan. Otsailak 25, martitzena. 21:30etan. *Oliver Productions*.
- **Las Insustanciales.** Algortako Satistegi-n. Otsailak 27, eguena. 21:30etan. *Oliver productions*.

LEIOA

- **Perdidos en la Miel.** XCaret-en. Otsailak 15, zapatua. 24:30etan. *Oliver Productions*.
- **Los Babiosos.** XCaret-en. Otsailak 22, zapatua. 24:30etan. *Oliver Productions*.

URDULIZ

- **Garaje de Pulpos.** Kultur Etxean. Otsailak 17, astelehena. 20:00etan. *Oliver Productions*.

ERAKUSKETAK

BERANGO

- **Alejandro Garcíaren** margolanak. Erakustaretoan. Otsailaren 16a arte

GETXO


- **Bosteko 2002.** Erromoko erakustaretoan. Otsailaren 28a arte.
- **EHUko irakasleen erakusketa.** Algortako erakustaretoan. Otsailaren 22a arte.

GORLIZ

- **Argazki erakusketa.** Erakusketa gelan. Otsailaren 19tik aurrera.

LEIOA

- **Petit Point.** Pinueta Kultur Aretoko erakusketa gelan.



► **HITZALDIA**

ALBERTO IÑURRATEGI ALGORTAN

Otsailaren 27an Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarra Getxo Antzokian egongo da *Hire Himalaya* ikusentzunezko emanaldia aurkeztzen. Euskaraz, eta gaztelaniazko azpiztituluekin, *Hire Himalaya*k irudi eta argazki bilduma ederra eskaintzen du. Gai nagusia Felix Iñurrategiren pentsamoldea da; 2000ko udan hil zen Felix, Albertogaz batera Gasherbrum II menditik bajatzen ari zela.

Non: Getxo Antzokia • **Noiz:** otsailak 27, eguena • **Ordua:** 19:30

PLENTZIA

- **Jon Unzueta**ren margolanak. Kultur Etxean. Otsailaren 15etik 28a arte.

URDULIZ

- **1998-2002: Kanpoko Pintura Lehiaketa** Urdulizen. Kultur Etxean. Otsaila osoan zehar.

HITZALDIAK

GETXO

- **Arboles y arbustos de Euskal Herria, parte VII. Basozaleak** elkartean (Karitatea 1, Algorta). Otsailak 24, astelehena. Alfred Llorenteren eskutik.

LEIOA

- **Ekitntza Zuzena.** Gaztetxean. Otsailak 19, eguaztena. 20:00etan.

IRTEERAK

GETXO

- **Aitzgorri** mendira txangoa. Otsailak 23, domeka. *Eleizpe Eskaut Taldeak* antolatuta. Izena emateko, 635 715 752.

MUSIKA

BARRIKA

- **Hush.** Golfo Norte-n. Otsailak 15, zapatua. 23:00etan.
- **Rubia.** Golfo Norte-n. Otsailak 22, zapatua. 23:00etan.
- **Rockadelica.** Golfo Norte-n. Martxoak 1, zapatua. 23:00etan.

LEIOA

- **Elfo Negro+Agitación.** Gaztetxean. Otsailak 22, zapatua. 20:00etan.
- **Hauteskunden aurkako kontzertua.**

AGUSTIN BILBAOREN ESKULTURAK IKUSGAI

Datorren otsailaren 25ean, Algortako erakustaretoan, Agustin Bilbaok egindako eskulturen erakusketa inauguratuko da. Martxoaren 8a arte bertara hurbildu eta Bilbaoren lanaz gozatzeko aukera egongo da.

Agustin Bilbao bilbotarra da, baina Uribe Kostan bizi izan da azken hogeit urteotan. Erakusketan aurkeztuko dituen eskulturak azken boladan egindakoak dira, eta hainbat materialez eginda daude: terrakota, brontzea, egurra, alabastroa... Guztiek daukate ildo bera: gizakiaren egoera animikoa.

Non: Algortako Kultur Etxean • **Noiz:** Otsailaren 25etik marxoaren 8a arte



Santa Koloma, Getxo



Aingeruarena, Getxo

Jainkoa


edonon

Toki guztietan aldi berean ei dago Jaungoikoa. Etxeak ere, hamaika dauzka, mundu osoan zehar sakabanatuta. Handiak eta, hauek bezala, txikerragoak. Irudiotakoak eskualdeko baselizak dira, kasu batzuetan basoaren tokia porlanak hartu badu be. Dagoeneko inork gutxik egiten du hemen otoitz, baina hor lotu dira, Jainkoaren atsedean leku bihurtuta agian. Hainbeste lan dauka-eta, azken boladan!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Ondizko Andra Mari, Leioa



Santa Mariñe, Urduliz



Meñakotzeko Ander deuna, Sopela



Santa Ana, Areeta



Santa Ana, Berango



Andra Mari, Gorliz



San Bartolome, Leioa



Martiatukoa, Erandio

[berbetan]

Berritzailea, apurtzailea, iraultzailea... Trikitixaren mundu zurruna goitik behera astindu du Errekalden jaiotako bilbotar peto honek. Txaloak eta kritikak, biak hartzen ohituta dago; zelangura bere, berak daroan ibilbideari zuzen eusten ahalegintzen da. Ideiak oso argi dauzka eta. Bilbon, Atxurin, egon ginen beragaz, etxe alboan beraz. Musikaren, beraren lanaren eta, behin baino gehiagotan, bizitzari begira daukan jarreraren gainean egin zigun berba ondoren datorkizuen berbaldi mamitsuan. Kepa Junkera da; ez du aurkezpen gehiagorik behar.

Kepa Junkera

Haize berriak

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Zelan hasi zinen trikitixa jotzen?
—70eko hamarkadako Bilbo hartan kokatu behar gara: euskal kultura aurrera ateratzea gatxa zen, uharte txikiak zeuden... Gure aititeak pandereta jotzen zuen, gure amak bere bai... Hortik etorri zitzaizkidan lehen trikitixa notak, eta oso txikia nintzela erritmo horrek erakarri egin ninduen, oso musika alaia delako; orduantxe hasi nintzen pentsatzen ikasi behar nuela. Aldi berean, amak solfeo, akordeoi eta piano eskoletara bialdu ninduen, baina mundu hura ez nuen oso gustoko. Denboraz, lagun batek utzitako trikitixa zahar bat lortu nuen, eta etxean hasi nintzen beraren sekretuak ikasten, zinta entzunez baita ere... Ez nuen irakas-

lerik eduki, autodidakta naiz. Gero, dantza talde baten egon nintzen; alboka, pandereta eta txistua ikasten hasi nintzen, dantzarako musika batez bere, baina bitartean trikitixa asko entzuten nuen eta neure abestiak egiten nituen. Apurka, kalejiretan eta txapelketaren batean parte hartzen hasi nintzen. Ibilbide bitxia da, trikitixaren munduaren %100a, ia, nekazal ingurukoa delako, eta ni aparteko kasua izan nintzen, oso euskalduna ez den Errekalde auzoko gazte bat nintzen eta.
—Hasieran, trikitixa... zelan esan? Konbetzionala egiten zenuen...
—Izan ere, niri gustatzen zitzaidana, e? Trikitixa klasikoaren zale handia naiz. Horri esker, beste Euskadi bat ezagutu

nuen, kultura batean sartzeko aukera eduki dut-eta: bertsolarien tradizioa, herri kirolena, jaiena, gastronomikoa...
—Baina estiloa aldatuz joan zara. Ez dakit bat-bateko kontua izan den, ala astiro gertatutakoa...
—Ni oso kurioa naiz. Beste musika mota batzuk entzun eta apurtzeagaz eta gauza berriak sortzeagaz amesten hasi nintzen. Espazioa bilatzea gustatzen zait, ez dut atsegin errepikatzea. Inoiz ez zait gustatu abesti bat beti modu berean jotzea, eta ez dut inoiz egin; ez nengoen konforme trikitixa jotzen ikaste hutsaz. Jeneralean, abesti bat ikasi eta abesti hori beti zehatz kopiatzen da; nik beti aldatzen nuen, berehala nekatzen nintzen. Nire



Diskografia

- **Kepa, Zabaleta eta Motriku.** 1987, Elkarlanean.
- **Triki Up.** 1990, Elkarlanean.
- **Trikitrixa Zoom.** 1991, Elkar.
- **Trans Europe Diatonique.** 1992, Silex.
- **Kalejira Al-Buk.** 1994, Elkar.
- **Lau Eskutara.** 1995, Elkarlanean.
- **Leonen Orroak.** 1996 Elkarlanean.
- **Bilbao 00:00h.** 1998, Resistencia.
- **Maren.** 2001, EMI.



Kepa Junkera gazte denboran

%150ean aritu

Bere bizitzako hainbat arotan, Kepa Junkera irakaskuntzari lotuta egon da. Hasi zenean, berak asmatutako metodoa erabiltzen zuen gainera: “*Trikitixa irakasteko ohiko metodoa oso oinarritzkoa da: bata bestearen aurrean jarri eta mugimenduak errepikatu. Abestiak ikasten dira, baina ikasleak ez ditu notak eta mekanismoa ezagutzen, ezin du eroan partitura etxera, ikasitakoa hobetzeko. Ni hori guztia solfeoaren bitartez azaltzen ahalegindu nintzen*”.

Ikasleakaz oso exigentea izateko ospea dauka Kepak. “*Bai*”, dino berak, “*exigentea naiz bizitzaren arlo guztietan. Lehenik eta behin, neure buruagaz*”. Beraren ustez, euskal kulturaren munduan behar egitea oso gatxa da. Horregatik, “*%150ean aritzen ez bagara, aukera asko daukagu atzean lotzeko*”.

izaerari lotutako zerbait da. Holan hasi nintzen amesten musika hau beste testuinguru batzuetara ateratzeagaz. “Zergatik ez dut lan egingo rock-a edo jazz-a gustoko duten musikariek?” esaten nuen. Eta noski, 20 urtean gauza asko egin dut, beti ere gauza berriak sortzeko eta ez errepikatzeko asmo horrek gidatuta. —Duela zenbait hilabete kontratua sinatu zenuen EMI konpainiagaz. Zelan doakizu? —Badaukat disko bat eginda, eta orain beste bat grabatuko dut, zuzenean, martxoaren 28 eta 29an Arriagan. Saltoa izan zen, ze Elkarregaz hasi nintzen, gero lan

“Zergatik ez dut lan egingo rock-a edo jazz-a gustoko duten musikariek?”, esaten nuen”


bat egin nuen Silex izeneko Frantziako diskoetxe bategaz, beste bat Madrilgo zigilu independente bategaz [Resistencia], eta ostean, EMIgaz. Proba egin gura nuen. Niri, musikaren munduan, produkzio prozesu osoa interesatzen zait, eta hau ikasteko modu bat da. Entzunda neukan multinazional batean ez daukala lekuri era honetako musikak, hau inposatzen dizutela, bestea egitera behartzen zaituztela... Eta nik neuk bizi gura nuen. Egia esan, bizipen garrantzitsua izaten ari da niretzat, batez bere neure buruarengan konfiantza ematen didalako. Agian, akat-

“Ez zait inoiz gustatu abesti bat beti modu berean jotzea”

sa lehendik dator: tresna jakin bat jotzearen edota kultura jakin bateko kide izatearren, zirkuitu batzuetan sartu ezin zarelaren pentsatzea, alegia. Nik neure buruari erakutsi gura nion baietz, egin ahal zela. —Zuzeneko diskoa grabatzear zaude. Zerbait berri prestazen ari zara? —Bai noski. Oso disko berezia izango da,

nire lehen zuzeneko diskoa izango delako. Ez da talde bakarra egongo, osagai asko baizik, eta kantu zaharrak eta berriak batuko ditu. Gainera, geroago egingo ditudan beste proiektu batzuetan ere murgilduta nabil. —Nazioarteko musikari askorekin batera aritu izan zara. Zein musikari gustatzen zaizu? —Sortzen dutenak batez bere. Iragana eta oraina dauzkatenak. Ez zaizkit gustatzen —zale modura— sketch batzuk errepikatzen dituztenak. Bai, ordea, arriskatu egiten dutenak, berezko izaera daukatenak. Eta ez dira asko.

—Trikitixak gordetzen dituzu. Zergatik? —Hamaika edo hamabi urteagaz hasi nintzen musikan, eta ematen zizkidaten gauza guztiak gordetzeko ohitura hartu nuen. Argazkiak, egitarauak, diskoak... Halako batean, konturatu egin nintzen polita zela, objektuak eta atzetik daukaten historia hori guztia. Orduan hasi nintzen tresnak gordetzen, ez bakarrik trikitixak, baita albokak, panderetak eta abar bere. —Eta, bide batez, non egiten dira trikitrixarik onenak? —Oraintxe, Italian. Baina azken batean ez da objektua besterik. Nik ez diot inoiz



“Trikitixa klasikoaren zale handia naiz”

luzioa, frabrikazioari dagokionean, geldirik dago?

—Oso astiro eboluzionatzen du ez delako masa-produktua, akordeoi diatonikoa —hori da bere izenik zabalduena— munduan zehar gehien ibili den tresnetakoa izan arren. Inmigrante mordo batek eroan du leku batetik bestera; jendeak ezin zuen pianoa eroan, noski. Beraz, geldirik? Trikitixa bera, hemen jotzen dena, hemen baino ez da jotzen, eta beraz ez dago etengabeko produkzioa. Jakina geldirik dagoela, baina

bere erritmoa dauka, ezta?

—Badaude kritika egiten dizuten sektore “tradiziozaleak”...

—Arazorik ez. Sortzen duenarekiko denetariko jarrerak egoten dira beti. Nik argi daukat dena eman behar dudala, pertsona arrunt eta normala izan behar naizela, neure jatorria gogoan daukadana eta neure burua apartekotzat ez daukadana, badakidalako zelakoa den hau, eta bizitzan gauza garrantzitsuagoak daude. Txalotu egiten dut kritika; beharrezkoa dela uste dut. ^m

TRUK KIROLAK

AUPA! ATHLETIC

KAMISETA

HELDUEN NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

54,06 €

EUSKAL SELEKZIOA

KAMISETA

HELDUEN NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

51,03 €

DEI KEZAGUZU ETXERAKO GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN

3,67 €
BIDALKETA GASTUAK

deitu!

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

Ez da erraza Prestige-tik datorren galipotaren gainean astebeteko aurrera-penaz erreportaje bat idaztea, haize eta itsas-korronteek egoera egun batetik bestera aldatzen dute eta. Halan eta guzti, hurrengo orrialdeetan hondamendi ekologiko latz honek Uribe Kostan eragindako egoeraren erradiografia ahalik eta zehatzena zuenganatzen ahaleginduko gara. Hamaika ikusteko jaio ei ginen; hamabigarrena ikustear gaude beharbada?

Eta orain, zer?

Hondamendia ate joka

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Zain geunden eta azkenean ailegatu egin zen. Iazko abenduaren 5ean Prestige petroliountziak isuritako fuelak Bizkaiko kostaldea jo zuen lehenbizikoz. Besteak beste, Getxo eta Sopela izan ziren bisitari desatseginarene hartzaileak. Orduetik hona, egoerak hobera eta okerrera egin du, pendulo baten antzera. Gaiagaz zerikusirik daukaten guztiak (edo gehienak behinik-behin) bat datoz, ordea, oraindik latzena ikusteko gaudela esatean.

Uribe Kostan kalteak jasan dituzten hainbat udalerrigaz harremanean jarri gara, euren kostaldearen egoeraren berri eman diezaguten. Oro har, udaletxeetatik datorkigun mezua lasaigarraia da. Benito Andraka Lemoizko alkateak holan egin digu berba Armintzako egoeraz: *“Momentuz dana deku garbi, baia orain dekun denbora honegaz segurantzean zeezer barri etorriko da”*. Galipot gehien batu den egunean, 100 kilo-edo batu dira Armintzan. Gainerakoetan, Andrakak dios-

kunez, *“kantitate txikerrak hartu dira: hamar kilo, bost kilo...”*.

Pedro Mari Zurbano Sopelako Lan eta Zerbitzu zinegotziaren berbak ere antzeko ildotik doaz: *“Sopela oraingoz ondo dago. Hirutan etorri zaigu galipota: abenduaren 5ean, abenduaren 16an eta urtarrilaren 10ean. Orain lantzean behin zeezer azaleratzen da, baina oso gutxi. Lasai-lasai ari dira garbitzen normalean hondartza garbitzen duten berberak”*. Batutako galipot kopuruaren gaineko lehen datuen arabera, 400 tona batu dira Sopelan. Zuek hau irakurri orduko, kopurua askoz handiago izango da, jakina.

Uraren kalitatea

Zurbanok uraren kalitatea neurtzeko kontrolak egiten direla adierazi digu: *“Ez da ezer txarrik agertzen; lasai har daiteke bainua. Izan ere, galipota guztiz solido eta zati txikitan etorten da”*. Kontu honetaz iritzi desberdinak daude, hala ere. Patxi



Ehundaka hegazti aurkitu dira galipotak jota. Goian, Sopelako hondartzan hartu dugun irudi bat.

Díaz, Ekologistak Martxan taldeko kide getxoztarra, esaterako, oso kritiko ageri da uraren kalitatea neurtzeko egindako probakaz: *“Analisiek ez dute erakusten uretan ezer arrarorik dagoenik, baina betiko analisiak egin dituztelako gertatzen da hori. Prestigeko fuelak urari kalte egin dion jakiteko, beren-beregi horretara bideratutako probak egin beharko lirateke”*.

Díazen ustez, egoera ez da aditzera ematen ari den bezain gozoa. Lanbidea dela-eta, hondartzetara joaten da umeakaz. Dioenez, *“ailegatutakoan, galipot gu-*

txi dagoela ematen du, hori egia da. Baina jesarri barik ordubete, ordu bi, hiru ordu... egon zarenean, deseroso sentitzen hasten zara. Uda honetan ezin izango da hondartzara joan, ezin da bertan luze egon eta”.

Hondartzazale direnentzat ez eze, beste askorentzat ere etorkizun beltza iragarri du Díazek. *“Zer gertatuko da itsasoan behar egiten dutenekaz? Arrantzaleak, momentu honetan, lur jota daude, eta guztiz zalantzan nago itsasora irten ahal izango diren. Ea zer gertatzen den orain hastekoa den antxoa eta berdelaren kanpainagaz”*.

NORA DOA BILDUTAKO GALIPOTA?

Itsasoan bertan biltzen den galipotak eta hondartzetatik kentzen denak ez dute bide bera hartzen. Lehenbizikoa Zierbanako superportuan dagoen edukiontzitzar batera eroaten da. Han iragazi egiten da, itsasotik etor litezkeen zikinkeriak kentzeko; aldi berean, berotu egiten da. 70-80°C inguruan dagoenean, kamioi-ontzitan sartu eta Petronorrera eroaten dute, bertan lehengai modura erabil dezaten.

Hondartza eta labarretako galipota ez da fuel hutsa izaten, beste material batzukaz nahastuta egoten da-eta, hareagaz batez ere. Hori guztia Zorrozako Sader enpresara eroaten da; handik, tratamendu baten ostean, zabortegi berezi batera bialtzen dute.



Uribe Kostako hondartzetan garbiketa lan ugari egin da. Okerrena, baina, ailegatzeko dago segurantzean, hau hasi besterik ez da egin eta.



Guztira kaltetutako hegaztien %1 eta %20 bitartean baino ez da jasotzen

Azken hegaldia

Lanius Bizkaiko elkarte ornitologikoak hegaztien alorrean behar egiten du. Egunotan, zer esanik ez, gainezka dabilta. Abenduaren 5ean Prestigeko fuela lehen aldiz Bizkaiko kostaldera ailegatu zenetik, “650 hegazti aurkitu dira galipotak jota, horietatik 75 bizirik”. Datua Gorka Ocio Laniuseko kideak eman digu; dena dela, zuek hau irakurri orduko zenbakiak askoz handiagoak izango dira. Uribe Kostari dagokionez, Ocioren elkarrizketa egiteko momentuan 60 ziren hilda jasotako hegaztiak. Batez ere, Azkorri hondartzan. “Gainera”, dio Ociok, “egunotan Azkorriara heltzen ari den fuela ez dator Prestigetik, hori berehala igartzen da. Argi dago jendeak aprobetxatu egiten duela untzia garbitzeko”.

Ociok dioenez, “guztira kaltetutako hegaztien %1 eta %20 bitartean baino ez da jasotzen”. Asko, gainera, epe laburrean desagertzeko arriskuan daude. Zalantza barik, galipotaren agerpenak prozesua bizkortuko du.

«Ikusiko da hemendik laburrera zenbat minbizi kasu dagoen Galizian, galipota baldintza desagokietan garbitzen ibiltzearren»

Zenbat fuel dago itsasoan?

Erreportaje hau ixteko momentuan ailegatzten ari diren berriek argi uzten dutenez, itsasoan harantz-honantz dabilen galipot kopurua uste baino handiagoa da. Instituzioen aldetik lasaitasunezko mezua zabaldu gura bada ere, hiritarrok ondo dakigu –era askotan eta toki askotatik eman digute aditzera– egunen batean ala bestean haizeak marea beltza ekarriko digula. Orain artekoa ahuntzaren gauerdiko eztula izan liteke, hortaz.

Gorka Ocio-k, Lanius elkarte ornitologikoko kideak, Prestigeko galipota

bezain beltz ikusten du etorkizun hurbila: “Bigarren Galizia bihurtu daiteke hau”. Ociok, gainera, fuelak osasunari eragin diezaiokeen kaltea ekarri gura du gogora: “Prestigek eroan duen fuela existitzen den hilgarrienetakoa da, arriskutsuetan arriskutsuenena. Besteak beste, minbizia eragiten du. Ikusiko duzu hemendik laburrera zenbat minbizi kasu agertuko diren Galizian, galipota baldintza desagokietan biltzearren”.

Zorionez, Euskal Herrian, eta Uribe Kostan ere bai, garbitzen dabiltzanak galipotagaz ahalik eta kontaktu gutxien edu-

kiteko arauak ondo betetzen dituzte. Halan beharko du. Patxi Díazez ere gomen-dioa zabaldu gura du zentzu horretan: “Ez da galipota ikutu behar, azalari kalte handiak eragiten dizkio eta”. Erne egon beharko dira, beraz, surflari eta abarrak.

Getxoko datu ofizialik ez

Lemoiz eta Sopelako udaletxeen adierazpenak aipatu ditugu lehen. Getxokoagaz ere berba egiten ahalegindu gara, baina, zoritxarrez, ezin izan dugu informazio ofizialik lortu. Dena dela, Gorka Ociogaz edukitako berbaldiak argibide-

ren bat eman digu. Laniusekoa Getxoko kostaldean ibili da, gora eta behera, lehen galipot mantxak ailegatu zirenetik. Dioenez, “hondartzak besterik ez dira garbitzen ari. Galiziakoa errepikatzen da hemen ere: jendeak ikusten duena makillatu, eta gainerakoa ikutu ere ez”. Zehazki, Galearen azpian dauden kala bi hasieran bezain zikin daude oraindik, beti ere Ocioren arabera. Hori bai, “Azkorrikoa garbitzen ari dira, sekulako lana eginez”, argitu gura du.

Beste kasu batzuetan kala eta labarren garbiketa bolondresen lan hutsaren menpe geratu da. Horixe da, esaterako, Sope-



zineeskola

Oscar Fernández

Zenbat galtzen du etxean ikusitako film batek?

Azken bolada honetan, gero eta sarriago eta hainbat eratan, publizitateak “zinema etxean” deitutako sistema saltzen digu edo behintzat saltzen saiatzen da. Beraz, gero eta gehiago jendea zinema aretoetara joan beharrean etxean bertan geldituko da ziurrenik. Ez naiz sartuko erabaki honek dituen ondorio sozialetan –horretarako beste idazki bat egin beharko nuke– baina burura datorkit José Sacristán aktorearen aholkua: “...atera etxetik eta joan zaitez zinema aretora...” Saia gaitezen, beraz, goiko galderari ahalik eta erantzun zuzenena ematen. Orohar bi motako filmak bereiz ditzakegu, formato eta planoen arabera: batetik telefilmak, telebistarako eginak, eta bestetik zinema aretoetarako zuzenduriko filmak (hauetariko hainbat eta hainbat telebistatik pasatuko dira, jakina). Lehenengoak telebistarako moldaturik daudenez nahiko ondo egokitzen dira telebistak duen formatora; bigarrenak, ordea, ez dira bat ere egokitzen; eta ez bakarrik askotan agertzen diren bi marra beltz horienagatik, ez. Ez dira egokitzen eta ez dira inoiz egokituko, etxean pantaila ikaragarri handia eta soinu-ekipamendu liluragarria baldin baditugu ere. Zuzendariak filma zuzentzen dutenean zinema aretoek daukaten pantailetarako egiten dute, eta honen arabera filmak duen barruko egitura tekniko eta artistikoa diseinatzeko dute. Beraz, hauetako filmak etxean ikusita eta baldintza onenetan ere, erraz galduko du ehuneko hogeita hamar, gutxi gora behera. Irakurriko luke inork eleberri bat halako galera izango duela jakinda?

Gauza bera da antzerki edo opera saio bat telebistan edo antzokian bertan ikustea? Sinisten ez baldin baduzue, egin ezazue proba galera norainokoa den zeuen begiz ikusteko. Baina, aurretik kontuan hartu filmen handitasuna eta ikusgarritasuna zinema aretoan baino ez duzuela inoiz ikusi eta sentituko. 3

Ikasi ikusten ikasi entzuten

Erandioko institutua da Bizkaian ikusentzunezko zikloa ematen duen bakarra



Guillermo Uria irakaslea, ikastetxeko platoon

Bizkaian Lanbide Heziketako ikastetxe bakarrak opezten du, bere menuan, ikusentzunezko zikloa, Erandioko Ategorri-Tartanga institutuak hain zuzen. Bertan, ikasleek zinemagintzari dagozkion hainbat arlo jasotzen dute: “Plano bat zer den, zeintzuk diren kameraren mugimenduak, argiztapena, montajea...” azaldu digu Guillermo Uria irakasleak. Zoritxarrez, baliabide faltan dabilta. “Dena bideoz egiten

dugu”, dio Uriak; “ikasleak kexatu egiten dira, baina hemen ikasten dena ikasteko nahikoa da”. Laburmetraiak, bideoklipak eta abar eginez jarduten dute zikloan dabilen 42 ikasleek. Etorkizuneko zuzendariak agian? Baliteke. Uriaren berbetan, “guk arlo teknikoa lantzen dugu batez bere, baina beti egoten da sortzailearen bat”. m

Harremanetarako: 94 467 53 11

Ez galdu > L'emploi du temps

Zuzendaria: Laurent Cantet • Non: Getxo Antzokia • Noiz: otsailak 21, barikua • Ordua: 20:00



Hau da Laurent Cantet frantziar film zuzendariak egiten duen bigarren filma. Lehenengoa, “Giza baliabideak” oso interesgarria eta hunkigarria izan zen, bai adierazten zuenagatik, bai eta forma edo itxuragatik. Lan honekin Donostiako Nazioarteko Zinemaldian 1999. urtean zuzendari berri hobereenaren saria jaso zuen, eta beste hainbat sari Europan eta Amerikan ere. Bigarren lanarekin –“Denboraren erabilpena”– berriro arrakasta lortu du: familia baten buruak lanbidea galdu du baina ez da gai gertaera gordin horri aurre egiteko; orduan, Osasunerako Mundu Erakundearen lan egiten duela asmatuko du. Bere familiaren bizitza mailari eutsi ahal izateko sarri erabili behar ditu irudimena eta ekimena.

* Oharra: Zinema programazioa ikusteko jo 3. orrialdeko agendara

Erradiografia > Konter



Konter taldeko musikariak

Nondik dator izena: “Zehazki ez dakigu. Gainera hasi ginenetik lau alditan edo aldatu dugu izena”. **Jaio ziren:** “Orain dela lau urte, hala ere gaur egungo formazioarekin urte bat daramagu”. **Taldeko ki-deak:** Gotzon “Torro” (abeslaria), Iker Llona (gitarra), Jon Calleja (gitarra), Jagoba Gorriñobeaskoa (baxua) eta Nikola Goñi (bateria). **Gustukoa dute:** “Denetarik, bakoitzak berea dauka, Euskal Herrian egindako musikatik hasita metal hutsera, punkera arte”. Musika egiteko orduan Konterrek ez du musika estilo zehatza jarraitzen, hala ere “taldearen

izakera metal gogorrena da”. **Disko-grafia:** Lokalean grabatutako lau abestiko maketa atera dute eta honetaz aparte Lleidako banatzaile batek egindako disko bilduma batean euren abesti bat sartu dute. **Besteak beste jo dute:** Sorluze, Leioa eta Mutrikuko gaztetxetan, Txiberri eta Donosti tabernetan, Getxo eta Sopelako jaietan, Leioako Kaos tabernan... **Euskal Musikaren egoera:** “Hitz gutxitan esateko, talde asko daude eta merkatu txikia. Honez gain, gure ingurunean lokal gutxi daude kontzertuak emateko”. m **657 712 611 (Gotzon)**

Zuzenean >

Martxoaren 1ean, Barrikako Golfo Norte tabernan, Getxoko Rockadelica taldeak joko du. Urtebete daroa Rockadelicak hileko lehen zapatu guztietan Golfo Nortean emanaldiak eskaintzen. Lau dira, hiru getxoetar eta guraso euskaldunak dauzkan estatubatuar bat, eta 60ko eta 70eko hamarkadetako kutsua duen rocka egiten dute. Baina Txema baxujoleak azaldu digunez, “estilo gehiagorekin batzen dugu: soul dela, blues dela, funky dela...”. Hilero toki berean jotzeak lanak ematen dizkie, gatxa delako ez errepikatzea: “Kontzertu bakoitza modu desberdinean egiten ahalegintzen gara, bertsioak aldatuz eta abar”. Martxoaren 1ean, beraz, Rockadelicaren kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da berriro, gaueko 11etatik aurrera eta dohainik.

Argazkian, Rockadelica taldea



diskoak

It had to be you
Rod Stewart
BMG



Rocker beteranoak bere diskoetxe berriarekin kaleratzen duen lehen lana da. 14 kantuz osatutako disko honek bi milioi ale baino gehiago saldu ditu AEB eta Erresuma Batuan. Stewart-ek txikitan entzuten zituen abestiak daude, George Gershwin, Cole Porter edo Ray Noble-k XX. mendearen hasieran idatzitakoak, alegia.

Eguzki begi
Laja eta Mikel
Elkarlanean



Iñaki Garmendia, “Laja” goitizenaz ezagunagoa den azkoitiar trikitilariak Mikel Alustizarekin batera grabatu du disko berri hau. JC Perezen gidaritzapean –bera izan da musika produktorea–, tradizioz bustitako lana prestatu dute. Jean Phocas teknikariak grabatutako diskoa “Triki” azpizigiluan kaleratu da.

Kokein
Kokein
Gaztelupeko Hotsak



Eibarko harrobitik atera den azken fruituak klasi-koetatik zein iturri berrietatik edaten du: Pearl Jam, Incubus eta horrelakoak. Taldekideak gazteak izan arren, hainbat musika-taldetan egon dira. Euren lehen diskoa PiLT-koen laguntzaz grabatu dute eta Zaloaren ahots berezia nabarmentzen da.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Oroimenik gabe

Iris Murdoch idazlearekin gogoratu nintzen aurrekoan. Livornoko Gran Viatik nindoan —Toskanako herrixkan izan behar ziren *Memoria Periferiche* jardunaldiek eraman ninduten hara—, eta egun batetik bestera maite dituzunak, zeure oroitzapen guztiak ahaztea zeinen gogorra izan behar duen pentsatu nuen. Murdochhi gertatu bezala. Hitzaldi bat eman behar zuen unibertsitate batean, eta bat-batean, hitz egiteko gai ez zela konturatu zen. Entzuleen artean zegoen John Bayley senarrak ezin zuen sinetsi. Hamaika hitzaldi bizkarrean, eta haietako batean ere ez zuen egun hartako urduritasun bera erakutsi. Irisen masailetik behera leunki zihozaren negar anpuuak. Aulkia bilin-bolonka zebilen Johnek utzi, eta, arineketan, emaztearengana joan zenean. «Ezin dut hitz egin, ahaztu egin zait», idatzi zion Irisek paper batean. Medikuek ez zioten itxaropen izpirik eman: Alzheimerraren zantzuak ziren haiek. Nora doa Irisen moduko pertsonen ezagutza guztia? Unibertsoan diren zulo beltzen antzera, han sartu eta betiko desagertzen dira? «Oroimenik gabe, ez gara ezer», idatzi zuen Bayleyk emaztearen ahanztura prozesu osoa deskribatzen zuen liburuan. Modu hartan, gaixotu aurreko Iris gogoratua izatea gura zuen. Oroimenik gabe, ez gara ezer. Hitz berberak esan dituzte Livornon. Idazleek, zinemagileek, aktoreek. Munduak, ordea, kontra-koa bultzatzen du. Agian, Bayleyren antzera, ahanzturaren kontrako liburuak idatzi beharko ditugu. 3

02 libururik salduenak

Unai Elorriaga

getxoztarraren *SPrako Tranbia*, euskaraz gehien salduenetakoa

2002 urtean gehien saldu diren liburuak zeintzuk diren jakiteko hainbat iturritara jo dugu. Azkenik, ordea, lortu ditugun datuak Asier Muniategi Euskadiko Liburu Azoken koordinatzaileak eman dizkigu. Baliteke, beraz, dendetan saldu denarekin



Joseba Sarrionandia



Unai Elorriaga



Jon Arretxe



Hasier Etxebarria

alderen bat egotea, baina orohar esan daiteke erosleen gustuak ezagunak eta aurrez igartzeko modukoak direla. Ez dago sorpresarik zerrendan. Euskaraz, Sarri eta Elorriaga punta-puntan daude, espero zitekeenez. m

Bost salduenak

1- Lagun izoztua> 2001eko Durangoko azokako izar nagusi bihurtu zen Sarrionaindiaren lehen eleberriak goiari eutsi zion iaz be.

2- Larunbatak> Aipatzekoa da Jon Arretxek lortutakoa: euskarazko literaturarena bezalako merkatu mugatu batean liburu bi jarri ditu salduenen artean. Bietako bat, trilogia ezaguneko azken zati hau.

3- Ekialdeko mamuak> Jon Arretxerena da, baita ere, bidaia luze baten kontakizun hau.

4- SPrako Tranbia> Luze berba egin dugu aldizkari honetan Unai Elorriagaren arrakastaz eta bere lehen eleberriaz. Ea *Van't Hoff-en ileak* bide bera hartzen duen!

5- Bost idazle > Hasier Etxebarriak Euskal Herriko bost idazlerekin izandako berbaldiek erosleen arreta bereganatzea lortu dute.

Telebista >

Zenbat kostatzen da iragarki bat telebistan?

Iragarki baten **prezioa** oso **aldakorra** da, faktore askoren menpe dago eta

Jose Angel Sainz ETBko publizitate bu-ruak azaldu dizkigu, azaletik bada ere—gaia oso mamitsua da—, telebistako publizitate-ak daukan prezioaren nondik norakoak. *“Gatxa da ‘Zenbat kostatzen da iragarki bat?’ itaunari erantzutea”,* diosku, *“irizpide asko erabiltzen delako kanpaina baten prezioa erabakitzeko orduan”*. Labur esanda, oinarrizko tarifak daude, baina sekula ez dira tarifa horiek ordaintzen, hamaika aldagai daudelako tartean. Besteak beste, *“kontratatzan den publizitate bolumena”*.

Gainera, oinarrizko tarifa bat baino gehiago dago, ordu bakoitzak berea dauka-eta. Ez hori soilik; saio batzuek prezio bereziak dituzte. ETBren kasuan, “garestienak” ETB-1eko zapatuko futbol partiduko atse-denaldia (2.705 euro 20 segundoko) eta ETB-2ko Teleberri-2 (2525) dira. Konparazioa egiteko, goizaldean emandako iragarki bat 180 euro kostatzen da, printzipioz behintzat. Esan bezala, tarifa hori ez da inoiz betetzen, *“beti merkeago suertatzen da eta”*, Sainzek dioenez. m



Orduaren arabera...

Telebista guztiak ez dute orduaren araberako banaketa bera erabiltzen, baina funtsean antzekoak dira denak. Hona hemen ETBk darabilena.

Prime Time > Garestiena. Gaueko 9etatik 12ak arte. Badago *Prime Time-2* deritzana, 12etatik 1'30etara edo.

Second Time > Eguerdiko 2etatik *Prime Time* hasi arte.

Day Time > Goiza, *Second Time* hasi arte.

Goizaldeak > Merkeena. Goizaldeko 1'30etatik aurrera.

Entzun >

Kantaita

Doinu ezberdinak eta munduko herri-musikak gustoko badituzu, “Kantaita” izeneko irratsaioa atsegin handiz entzungo duzu. Olatz Zugasti abeslariak aurkeztuta, Euskadi Irratiak ematen du astelehenean, egunean eta barikuan gaueko 10etako albisteen ondoren. Gainera, goizeko 5etatik aurrera errepikatzen da ordubeteko iraupena duen saio hau.

Irakurri >

Gaztetxulo



Gaztetxulo “Euskal Herriko gazteen hilabetekaria” lelopean agertzen da kioskoetan, izan ere 16-20 urte bitartekoei dago zuzenduta batez be, hilabetero kaleratzen da eta Euskal Herri osoan banatzen da. Aldizkari hau 1998an sortu zen Irutxulo donostiar astekariaren bi orrialde betez. Harrezkeroztik ibilbide luzea eta oparoa egin du Gaztetxulok. 2000ko urrian aldizkari nazional bihurtu zen eta iaz Rikardo Arregi kazetaritza saria jaso zuen. Bi euroren truke musika, zinema, literatura, telebista eta gaurkotasuna dituzu Gaztetxuloren kolorezko 50 orrialdeetan.

uhinakFM

Getxo Irratia		87.6
Koska Irratia		89.8
Radio Euskadi		92.4
Euskadi Gaztea		94.7
Bilbo Hiria Irratia		96.0
Tas-Tas Irratia		97.0
eitb irratia		100.1
Bizkaia Irratia		102.6
Euskadi Irratia		104.4
Pititako Irratia		107.0

liburuak



Zorion perfektua
Anjel Lertxundi
Alberdania

Atentatu baten lekuko izan da 16 urteko neska bat. Berak kontatzen ditu, handik urte batzuetara, 24 ordu haiek, inguruan eta bere barruan gertatu ziren hausnarketak jasoz.



Eraztunen Jauna I
J. R. R. Tolkien
Txalaparta

Trilogiaren lehen liburu-kia da “Eraztunen Elkartea” eta literaturan asmatu den lurralde mitologikorik ezagunena biltzen du. Fantasia epikoaren aitzindaria eta gailurra da liburu hau.



Itzalak luzatu egiten dira
Henning Mankell
Erein

Juan Mari Mendizabalek itzuli du Joel Gustafson mutikoari buruzko kontakizun liluragarri hau. Honako hau tetralogiako bigarren abentura dugu. Mankell suediarra maisua da gazte literaturan.

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Gure espezieak >

Dortoka korrontezalea



- **Izen generikoa:** *Mauremys leprosa*.
- **Izen arrunta:** *Dortoka korrontezalea*.
- **Bizilekua:** *Ingurune heze eta erreketan*.

DORTOKA KORRONTEZALEA erraz nahastu daiteke dortoka europarrarekin eta Floridako dortokarekin, baina badu zenbait bereizgarri. Sorbalda, oskolaren goiko zatia, berde ilun kolorekoa du eta oskolaren beheko zatia, berriz, horia, ia guztiz betetzen duen orban batekin. Burua oliba kolorekoa du, eta hanketan eta buztanean legez, marra paralelo horidunak ditu. Gazteak direnean laranja koloreko orban boro-bila izaten dute buruaren alde bietan.

«Dortoka honen populazioa oso urria da eta mehatxuta dago»

Ur goxoko dortoka da, eta beraz, aintziretan, urtegietan eta halako lekuetan bizi ohi da. Gure inguruan, leku hezeetan eta agian gure erreken zenbait tartetan ere aurki dezakegu. Honela, apoarmatu hau ikusteko lekurik egokiena Bolueko padura da.

Egunez ibili ohi da kanpoan, eta batez ere egun eguzkitsuetan. Negua heltzean ur landareen sustrai eta lohi artean ostenetzen da. Udaberria heltzean hasten da birsorkuntza garaia eta kopulazioaren ostean emeak ur bazterretan lurperatzen ditu arraultzeak. Dortoka honen populazioa urria da eta mehatxatua dago. Izan ere, Floridako dortoka bizileku ekologiko berean dago: hau oso jatuna da eta arin ugaltzen ari da. Hau dela eta, eta neurririk hartzen ez bada, kanpoko espezie honek bertokoa den korrontezaleari kenduko dio lekua, konpetentzia handiegia egiten dio eta.

Gaia > Zakarrontzi beilegiak

Zer sartu behar da?

Supermerkatuetako plastikozko poltsak bota daitezke, besteak beste

Honezkero ohituta gaude gure kaleetan kolore askoko edukiontziak ikusten. Baina batzuetan ez dugu argi izaten zelan erabili. Beilegiaren kasuan, zalantzak egoten dira hori dela eta. Ez da gain gatxa ordea. Edukiontzi beilegira plastikozko, metalezko eta tetrabrikezko ontziak bota daitez-

ke. Plastikozko poltsak ere sartzen dira multzo horretan, askotan ezetz uste dugun arren. Bestalde, birziklapenaren aurretik egiten den sailkatze prozesuan, tamaina txikiko gauzak baztertu egiten dituzte. Tamaina txikikoa diogunean, *Petit Suisse* baten tamainaz ari gara. ^m

Getxoko edukiontzi beilegietako bat, Arrigunaga inguruan



ZENBAT DAUDE?

- Barrika13
- Berango24
- Erandio71
- Getxo204
- Gorliz32
- Leioa115
- Lemoiz17
- Plentzia14
- Sopela48
- Urduliz13

GUZTIRA551

Sasoia da > Kontrapasa



Negua inguru epeletan igaro ostean, hainbat hegazti (pagausoak, birigarroak...) iparralderantz abiatzen hasi dira berriro ere; han, udaberriaren etorrerarekin batera, ugaltzen hasiko dira. Otsaileko egun hauetan zerurantz begiratu besterik ez dugu ikusgarriak diren hegazti-saldo ugari pasatzen ikusteko. Baina kontrapasa arreta handiagoz ikusi gura duenak badu horretarako egokiak diren hainbat leku; Sierra Salvada ingurua, adibidez. Hala ere, gure eskualdean ere zenbait tokitara hurbil gaitzke ikuskizun honetaz goatzeko: Unbe, Jata edo Sollube bezalako leku garaietara, eta baita kostaldean ditugun itsaslabarretara ere (Azkorri, Billano lurmuturra...). Azkeneko leku hauetan, aipatu hegaztiez gain, itsas hegaztiak ere ikus ditzakegu; Prestige-k sortutako hondamendiak horretarako aukera emanez gero.

Txangoa >

Regato inguruak



Regatoko urtegirako igoeran kolore berdea da nagusi

Testua eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**

Barakaldon mendixka berdez inguratutako aran batean hainbat bide abiatzen dira mendian gora. Regato da leku hau, garai guztietako etxe eta baserrien bilgune txikia. Handik mendien gainan dauden urtegieta-ko batera abiazen naiz lau txakurrekin. Igoera hasieran biguna da, laster aldapat-suago bihurtzen hasiko bada ere. Bidean pinuz jositako maldak ikusten dira eta naturaren gozoa arnasten da. Ordu betez ibili eta gero, ibiltariak presa txiki batekin egingo du topo. Honek ur geldia eta uher-rrak biltzen ditu. Gure bideak urtegiaren ertzetik jarraitzen du. Gero honetatik

urruntzen da harrizko bide hertsia bihurtzeko. Bide bazterreko landaretza oparoa da eta tarte batzuetan zerua izkutatzen du. Akabuan bidea atzera zabaltzen da eta larre berde eta emankorrak azaltzen zaizkigu begien aurrean. ^m

Zelan heldu

- Santaderrera-ko errepide nazionala hartu eta Retuertan, El Regato esaten duen bide seinalea jarraituz ezkerreko bidea hartu. Laster herrira helduko gara.



Irteerak >

Atal honetan eskualdeko taldeek antolatzen dituzten mendi irteeren berri eman nahi dugu. Zuen mendi irteerak iragartzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

Mendi kirolak >

Orientazioa

ORIENTAZIOAK Eskandinaviar herrietan hartu zuen kirol izaera; XIX. mendearen bukaeran, hain zuzen ere. Gure inguruan, ordea, jarduera nahiko berria da, eta horren ondorioz, oraindik ezezaguna askorentzat. Oso harreman estua du naturarekin, zelai eta basoetan zehar praktikatzen da eta; eta lehiaketa moduan egin badaiteke ere, atsegin hartzeko jolastzat ere har daiteke. Izan ere, orientazioa, fisikoki eta teknikoki bereiztutako maila ugaritan banatzen den kirola da.



Mapa eta iparrorratza besterik ez dira behar

Helburua, plano batean markatuta dagoen ibilbidea ahalik eta denbora laburrenean egitea da, hori lortzeko iparrorratzaren laguntza dugula. Ibilbidean, kontrol puntuak daude, eta mugara heltzeko, puntu hauetatik planoan azaltzen den ordenean pasatzea derrigorrezkoa da.

«Helburua, plano batean markatuta dagoen ibilbidea ahalik eta denbora laburrenean egitea da»

Norbera sasoian izateaz gainera (edo hobe esanda, sasoian izatearen gainetik), orientatzeko gaitasuna, maparen irakurketa zuzena, ibilbide laburrena aukeratzen jakitea eta orientazio tresnak ondo erabiltzea dira ezaugarri garrantzitsuenak.

Bestalde, nahiz eta kirol honek hainbat modalitate izan (eskiekin egindakoa, gauez egindakoa, bizikletan egindakoa...), gure artean, oinez edo korrika burututakoa da ohikoena.

Informazio gehiago
Tel.: 94 4414879 (Bilboko “Cobi” taldea)

Gorputza >
Etxeko botikina



Askotan entzun ditugu etxeko botikinaren inguruan egindako gomendio eta aholkuak; baina jaramon egiten diegu aholku horiei guztiei? Badakigu zehazki zer eduki eta non egon behar duen etxeko botikinak? Hona hemen jakin beharreko zenbait gauza:

- Non jarri behar dugu etxeko botikina?**
- Botikinak umeen eskumenetik kanpo egon behar du, hauek bertako gauzetan kuxkuxeatzeko modurik izan ez dezaten.
 - Sukaldea eta bainugela ez dira leku egokiak, hezetasunak eta tenperatura aldaketek botikei kalte egin diezaiekete eta.

- Zer eduki behar dugu bertan?**
- **Oinarrizko tresneria:** artaziak, pintzak, termometroa, eskularru esterilak.
 - **Sendaketarako materiala.**

Hauek ezinbestekoak dira botikinean, eta zauriak garbitu, odoljarioak eten eta infekzioetatik babesteko balio dute: gasak, konpresak, bendak, esparatrapua, kotoia eta neurri askotako tiritak.

- **Antiseptikoak.** Lesio bat izan dugunean, infekzioa saihesteko erabiltzen dira: iodoa, alkohola, suero fisiologikoa, xaboia eta ur oxigenatua.

- **Sendagaiak.** Analgesiko eta antikatarralen bat. Gripearen lehenengo sintomak agertu bezain pronto, sintoma horiek arintzen saiatzeko. Marka komertzialak ugariak dira, eta ez dago medikuaren errezetaren beharrik botikan erosteko. Hauek dira oinarrizko batzuk: aho bidez hartzeko suero-sobreak, erreduretarako pomada, ziztada eta hanturetarako krema, antiidiarreikoak, antiazidoak bihotzerreak eta indigestioak dituztenentzat eta antiespasmodikoak.

Gogoa > herstura edo antsietatea
Jakin behar dena

Nagore Etxebarri psikologoa

Ia denok ezagun ditugu egoera desatsegi-nen aurrean gure gorputzak jasaten dituen aldaketak. Aldaketa horiek ezinegonera eragiten digute eta fisikoki senti ditzakegu: bihotz taupadak bizkortzea, arnasa hartzeko zailtasuna, izerdia isurtzea...

Izatez, aldaketa hauek gure senekoak dira eta gure gorputzak egoera larrietan ahalik eta hoberen erantzun ahal izatea dute helburu.

Baina arazo bihurtzen dira gorputzaren erantzun hori neurririk gabe datorrenean edo behar ez diren egoeretan eta iraupen luzeegiaz. Hau da, barne hersturako nahasketa bat dagoela esan dezakegu gorputzak beldurrezko erantzun larri horiek ematen dituenearan arrazoi fisikorik ez egon arren. Herstura-krisia- ren iraupena minutu batzue- takoa izan ohi da, baina ordu

batzuk irautea ere gerta daiteke, eta ustekabe- an sortzen da, nahiz eta elementu kezagarria aurrean ez egon edo beste inoren arreta ez izan; eta hainbat ezaugarri fisikoren bidez aza- leratzen da: itomen sentsazioa, zorabioa, itola- rria, bihozkadak, dardarak, hotzikarak, min- prekordialak, sabeleko ondoeza... Baina batez

ere beldur izugarria, kontrola galtzearen bel- durra edo hiltzearena. Nahasketa hau nahiko sarri agertzen da, eta haurtzaroan izandako banatze batek sorturiko larritasunarekin lotu- ra izan dezakeela uste da. Nahiz eta haurtza- roarekin lotu, 20 urteetatik aurrera azaleratu ohi da, eta alkoholarekin eta drogekin okerra- gotzen ez den kasuetan, sendatzeko aukera handiak ditu. Dena den, herstura nahasketak orokorrak izan beharrean zehatzak izan daitezke, eta egoera jakinetan agertu; ha- lakoen adibide ditugu agora- fobia, fobia soziala, nahaste obsesibo-konpulsiboa...

Laburbilduz, zenbait egoe- rak erantzun fisiko bat eragi- ten dute gure gorputzean egoera horren aurrean hobe erantzun ahal izateko. Baina zenbait kasutan aurreiritziak ditugu eta gehiegizko beldu- rra sentitzen dugu; beraz, egoera berezi horiek identifikatu eta arrazoiaren bidez kontrolatu eta menperatu behar ditugu.

Hori bai, ez pentsa herstura nahasketa dugula izerditan eta arnastetuka hasi bezain laster: lehenik eta behin gure gorputza osa- suntsu dagoela egiaztatu behar dugu. m



«Egoera berezi hau identifikatu, eta arrazoiaren bidez kontrolatu eta menperatu daiteke»

Jose Unzurrunzaga Astigarra

HORTZ?KLINIKA

Tel.& Faxes: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerrean
ALGORTA

OSAEIDE?HORTZ?KLINIKA
Arantz Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PATI

Bidebarri 27, behea eskuinean
ALGORTA 94 94 430 76



Garbiñe Urdampilleta eta Juana Ruiz dira Jota Mas Ge-ko sortzaileak

Garbiñe Urdampilleta > Arropa disenatzailea
Jota Mas Ge, Jantzi eta Gozatu

Jota Mas Ge jantzi-diseinu enpresa getxoztarrak arrakasta lortu du nazioarte mailan. Juana Ruiz eta Garbiñe Urdampilletak sortu zuten duela 16 urte, eta harrezkeroztik etengabe haziz joan da.

Elkarrekin diseinua ikasten ibili eta gero, egun batez Juana eta Garbiñe kafe bat hartzeko elkartu ziren. Elkarriketa haren ondorioz diseinatzen hastea era- baki zuten. “*Hasieran lagunentzat egiten genuen*”, dio Garbiñek, “*gero, arrakasta geneukala ikusita, inguruko denda batzuentzat egiten hasi ginen*”. Hutsetik abiatu ziren eta gaur egun langile mor- dotxo bati ematen diote lana. “*Enpresa- ikuspegia eduki genuen*”, kontatzen du Garbiñek.

Lagun baten ganbaratik gaur egun Algortan daukaten lonja handiraino heldu arte hainbat lekutatik igaro dira, beti ere enpresaren hazkundeagaz bate- ra. Apurka-apurka, Jota Mas Ge enpre- sak Espainiako, Europako herrialde askotako eta AEBetako merkatuetan ere burua sartzea lortu du. Orain Txinakoa daukate helburu. Jota Mas Ge-ren jant- ziak Estatuko pasarella garrantzitsuene- tan ibili dira: Cibeles, Gaudi... Orain-

goz urrunago ez, baina Garbiñek dio- nez, “*ez daukagu presarik, oso lasaiak ga- ra eta*”.

Jantzi erosoak
Andrazkoentzako jantziak egiten dituzte soilik. “*Arropa eroso egiten ahalegintzen gara*”, dio Garbiñek, “*gaur egungo ema- kumeak goizetik gauera mugitzen direlako. Lan egiten dute, umeak dauzkate... Eta arropak, eroso ez eze, dotorea eta era guz- tietako jantziekin batera konbinatzeko modukoa izan behar du*”. m



I

I aki
Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

Torrene 2, ALGORTA
T: 94 491 12 71

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ETA AURRERANTZEAN

ordenagailuen zerbitzu
teknikoa

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94 676

BILBO MICRO



“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknika: 4230213

[sarean]

Komunikazioak oztopatzen Telefónica abian jarri duen sistemak internet-light modukoa dakar

Pasa den abenduan proba baino ez zuten egin, baina Telefónica martxan jarritako *proxys* martxan daude urtariletik. Eta ez dago euren besoetatik ihes egiteko modurik. Baina, zer dira *proxys*? Erabiltzaile batek webgune bat irakurtzen badu, Telefónica webgune hori gordeko du bere ordenadore-tan, beste erabiltzaile batek webgune horretara sartzen denean gunearen bert-sio zaharra erakusteko.

Honek webguneen zentsura erraz-ten eta diru galanta aurreztarazten dio Telefónica-ri, eta kalte handiak sortzen dizkie webgune aldakorrei (egunkariei, adibidez) erabiltzaileek eduki zaharkituak jaso ditzaketelako. Arazo hau AD-



SL-ko erabiltzaile gehienek izango dute, nahiz eta internet-lotura Telefónica ez den hornitzaile batekin izan. Azken finean, Espainiako ADSL konexio gehienak, lehenago edo geroago “anai handi” horretatik pasatzen baitira. m

webgida

ZER OTE DA MATRIZ?
> www.whatisthematrix.com

Inoiz ‘deja vú’ delakoa sentitu duzu? Matrix filmean badute sentimendu horren azalpena. Estrenatzear dagoen “Matrix reloaded”-ek web galanta du honelako bitxikeriak jakiteko.

IKUSGELA
> www.ikusgela.com

Portal ederra ikusgelakoek sortu dutena. Elkarkidetza, sexualitate, bideo klipak, erreportajeak... eta dena euskaraz. Nabigatzen puntuak ere lor daitezke, gero sariak eskuratu ahal izateko.

KAMASUTRA
> yonkis.ya.com/flash/kamasutra.htm

Titulua ikustearekin bakarrik baietz igarri webgune honetan

Sarean aurkitu dugu > Denetarik



Interneten irudi harrigarriak edo barregarriak topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu.
ukaldizkaria@telefonica.net

KAMILTXO

lehen hartz
euskalduna!



27 €
bidalketa gastuak:
4,25 €

DEITU ORAIN

902 45 12 12

EGUN GUTXIREN BURUAN, ZURE ETXEAN

TRUK

902 45 12 12
IRUÑA • EUSKAL HERRIA

Torrebarriako mutilaren barri

Josu Landeta > Bihotzetik ahora zuzen

Festa giroan maisu, kalez kale ibilten da usu, nork ez dau ezagutzen Josu? “Ni Getxoko naz, Torrebarriako”, hasi jaku esaten, berearen defentsa egiten, betiko lez, apal-apal, baina ozen.

Testua: **Josu Arroyo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Noz egin zan Josu bertsozale?
—Kasualidade handia izan zan. Hasieran bertso mundua urrunetik ikusten neuén (ikastetxean erderaz ikasita...). Euskeraz banekian, baina Magisteritzan sartu arte ez nengoan euskal munduan sartuta. Azken urtean Getxoko bat etorri zan esaten bertso eskolan taldea egiteko jendea behar zala. Nik esan neutson, “txo, baina nora us-te dozu joango nazela ni bertsotan?”. Azkenean konbentzitu ninduen, eta sartu egin nintzan, eta zaletu bere bai, 22 urtegaz.
—Eskolako urteetatik, zein dira zure oroitzapen onena eta txarrena?
—Momentu onak asko egon dira, eta txar gitxi. Momentu on bat, duda barik, Isidronean Trino eta Josebagaz egiten genduzan egonaldiak. Batzuetan bertso afarien inguruan, beste batzuetan poteoak... Momentu txarra, urte batzuetan egon zan beheraldia. Sasoi bat bukatu zan, eta gitxi geratu gintzesan, gure adineko gitxi. Ez zan aparteko dinamika egon. Orain momentu onean gagoz barriro.
—Gaur egun, zelan ikusten dozu zeure burua eskolan?
—Esaten deuskue neure sasoiakoei beteranoak garela... Nik hori ez dot zuzen ikus-



“Esaten deuskue neure sasoiakoei beteranoak garela”

ten, gu ez gara bertsotan arituak. Nik ez dot bertsoa txikerretatik mamitu, eta ondino asko dekot ikasteko.
—Betidanik izan dozu umeakaz tratua. Denboran aldatu egin al dira umeak?
—Nik esperientzia daukot umeakaz Magisteritzako praktikak egin nebazanetik, eta nik ez dot pentsaten alde nabarmenik dagoanik. Lehen baegozan ume batzuk formalak ziranak, beste batzuk bihurriak, eta beste batzuk bihurriagoak, eta orain bere halan da.
—Kontaguzu Josu umeekin izan dozun anekdotaren bat.

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Josu Landeta Egurrola.
- ▶ 1965ean jaioa, Bilbon.
- ▶ Getxon bizi da. Ezkondua, seme-alaba bi.
- ▶ Magisteritza ikasketak eginda.
- ▶ Euskal Filologian lizentziatua.
- ▶ 13 urte irakaskuntzan, AEKn irakasle.
- ▶ Egun, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen lanean.

Etorkizuna gurea da

Bertsojartzailea: **Josu Landeta**
Doinua: **Desagertua deitzen didate**

- 1**

Ni txikerretan euskaraz eta erdaraz hazi ninduten, baina erdaraz bizi nintzen ta zulo hartatik ezin irten. Nire ametsa euskara zen ta hala nioen ozen. Euskaraz bizi nahi nuen eta sartu egin nintzen zuzen. Bertso eskolara lehenbailehen joateko esan zidaten; ohartu orduko bertso kantuan ibiltzeko kapaz nintzen
- 2**

AEKn hasi nintzela pozik ni irakasle lanetan, loralditxo bat izan genuen eskolan sasoi haietan; denbora onak benetan, Isidronean kantetan. Giro beroak probatu eta sartu ginen giro hotzetan. Batzuetan poz handietan, beste batzuetan penetan, gure eskolak zutik iraun du herri erdaldun honetan.
- 3**

Gure euskararen egoera da oraindik nahiko larria. Itxaropena oraindik bada, horra gure loraldia: bertso eskolan da hasia giro ikaragarria, ume ta gazte ugari daude alaitzen gure herria. Badugu gogo bizia, geroa dugu handia; herri euskalduna izango gara, gainera bertsolaria!

“Harritu egiten naz eskolaren momentu onagaz, baina beheraldia datorrenerako adi ibili behar da”

—Sopelako ikastolan nengoala euki naben ikasle bat nahiko berezitsua zana. Inoiz ez euen bertso bat zuzen egiten, nahiko motela zan. Baina egun baten han egon zan itxaroten, “Josu, gaur egin ditut bertso batzuk ikaragarriak, hiru zortziko txiki”. Ni guztiz harrituta. Bertsoak kantaten hasi, “Neska zahar bat tentatzen / hasi naiz lehenguan...”, Txirritaren bertso berbera, letrarik aldatu barik. Sikieran aldatuko bazeuen letraren bat! Eta holangoak badira batzuk.
—Eta etxeko txikiak, aitarene moduan, bertsolari?
—Gatz egiten jat imajinatzea nire umeak zer izango diran, baina nik ahaleginak egingo dodaz haiek bertsotan hasi daitezana. Ni pausoak emoten hasi naz eta nagusiari, Aritzeri, Txirritaren bideo bat erosi deusat, eta poz-pezik dago bideoa-

gaz. Txirritaren trikimailuak hasi da erabiltzen, esaldi errimatuak, “Aitor, beti galdezka dator”, “Auskalo, jun ta buscalo”...
—Amaitzeko, Josu, zelan ikusten dozu eskolaren geroa?
—Harritu egiten naz eskolak daukon momentu onagaz, erakunde guztiak nahiko ahul dagozan momentu honetan. Lehen ez genduan jendea daukagu, eta ganera, 9-10 urtekoetatik, zaharrenetara, adin guztietakoak dagoz. Oso indartsu gabilz, ekitaldi asko egiten dire... baina ezin gara lotan geratu, beheraldia datorrenerako adi ibili behar da.

“Nahikoa dekozue?” galdetu euskun kezkatuta Josuk, inpresinoa eukalako gauza erdiak esan barik joan jakozala. Beste erdi horreek bertsotan esan euskuzan. m

BERTSOAGENDA

“Txapel bete bertso” emanaldiak

- ▶ **Otsailak 14**, 22:00etan, Zamudioko Herrikoa Tabernan
Bertsolariak: Iker Gangoiti, Miren Ibarluzea, Beñat Ugartetxea, Ander Salaberri.
- ▶ **Otsailak 21**, Sopelan
Bertsolariak: Miren Loizaga, Unai Angulo, Javier Martinez “Guti”, Alain Martínez de Urrutia.
- ▶ **Otsailak 28**, Mungiako Kos Taskan. Bertsolariak: Jabi Olibares, Eñaut Intxaurreaga, Jon Berrokal, Oihana Bartra.

Mendebaleko euskera

Gurea ikasi

Azken hilabeteotan, inguruko hainbat lagunekin berriketan ibili gara eta honek gure hizkerara hurbiltzeko aukera eman digu. Baina, hemendik aurrera, hurbilketa soila egiteari utzi gura diogu, zerbait gehiago sakontzeko asmoz; gure euskara ezagutu ezezik, ikasi eta kalean ere erabil dezagun!

Testua: Urtzi Iglesias

Orain arte elkarrizketak izan dira nagusi gure euskararen txoko honetan. Horietan, hainbat pasadizo irakurtzeko aukera izan dugu, eta hauei esker bai aitzinako kontuen eta baita bertoko euskararen berri izan dugu.

Hemendik aurrera, elkarrizketak egiten jarraituko dugu baina beste gai batzuk ere tartekatuko ditugu (kantak, esakerak, eguneroko kontuak, ariketatxoak...). Aldi berean, gramatikari ere helduko diogu eta behar horri zutabetxo bat eskainiko diogu hamabostean behin. Jakina denez, gure helburua ez da lan sakon bat burutzea, baizik eta gure euskararen gramatikan antza hurbilpen orokorra egitea, guztiok zerbait gehiago ikas dezagun, eta gure artean berba ere egin dezagun.

«Euskalkien gaur egungo hedadura eta banaketa erakutsi zuen Koldo Zuazok 1998an»

Gure hizkera eta mendebaleko euskara Asko dira euskalkien gainean plazaratu diren azterketak. Horien artean, atal honetan noizbait aipatu dugun Luis Luciano Bonaparteren beharra dugu; bertan, mendebaleko bizkaiera aipatu zuen eta horren barruan, Plentziako barietatea deitu zuena kokatu zuen.

Koldo Zuazok, bestalde, 1998an, gaur egun diren euskalkiak erakutsi zituen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian plazaratutako “Euskalkiak gaur” artikuluan. Bertan, mendebaleko euskaraz egiten zuen berba eta azpi sailkapen bat ere ondu zuen, sartaldea eta

sortaldea alderatuz. Sortaldean, Durangaldea, Lea-Artibai, Deba arroa eta Aramaio kokatu zituen; sartaldean, berriz, Arratia, Orozko, Zeberio, Nerbioi arroa, Mungialdea, Txorierri eta Uribe Kosta. Eremu bi horien artean, tarteko hizkerak ere azpimarratu zituen Zuazok: Busturialdea, Zornotza eta Otxandio.

Honela, azpieuskalki horiek mendebaleko euskara osotzen dute, ezaugarri jakin batzuk dituztelako; baina euren artean aldakuntzak ere badaude. Aldi berean, azpi eus-

kalki horietan ere lekuan lekuko aldaerak ikus ditzakegu. Beraz, Uribe Kosta eta Mungialdeko hizkeretan, bietan erabiltzen diren hainbat ezaugarri egon arren, eremu batean arruntak diren beste zenbait ezaugarri ez dira bestean erabiltzen edo arrotzak dira.

Bada, gure euskarari buru-belarri heldu baino lehen, ezaugarri horietako batzuk ikustea merezi duela uste dugu. Mendebaleko euskararen ezaugarriak ikusiko ditugu oraingoan eta sartaldea eta sortaldea bereizten dutenak hurrengo alean. m

Mendebaleko euskera

Mendebaleko euskara (mendebaleko hizkeretan ikus ditzakegun zenbait ezaugarri eta aldaera). Leioako adibideak hartu ditugu.

- | | |
|--|--|
| 1. Txistukari sail biak erabat neutralizatu dira.
<s> eta <z> ‡ <s>
<ts> eta <tz> ‡ <tz>
deskantzu ‘deskantsu’
soso ‘zozo’ | 6. Nor-nori saileko iraganaldia oraina + -n bidez osatu ohi da.
yaten ‘zitzaidan’ |
| 2. au- ‡ -eu- egiteko joera dago.
geur ‘gaur’ | 7. Nor-nori-nork saileko erroa *eutsi da (bestelako euskalkietan, *-i-).
dotzet ‘diot’ |
| 4. Soziationeko morfema berezia: sg. -gaz eta pl. -kaz
alabeas alabakas | 8. Aditzetako pluralgilea -z da.
dekoas ‘ditut’ |
| 4. 3. graduako erakuslea a da (bestelako euskalkietan, hura):
“a gisona kanpokoa da” | Salbuespena *edun-en adizkietan (ditut...)
9. Igon eta urten iragankorrak dira.
“Urten dot berandu” |
| 5. *edun-en erroan -o-, -au- eta -eu- ditugu, adizkien arabera.
deude ‘dute’ | 10. Aditz izenak, mugimenduzko aditzen osagarri direnean eta norabidea edo helburua adierazten dutenean, inesiboan erabiltzen dira (bestelako euskalkietan, adlatiboa)
“Bano etzera beskaltan” “Banoa etxera bazkaltzera” |

Aldaerei dagokionez

- u- duten, ule, uri, urten, urun... bezalakoak.
- d- duten, edur, bedar... bezalakoak.
- -to duten, txarto, ederto... bezalako adberbioak.
- -n duten, zelan, alan, olan... bezalako modu adberbioak.

Lexikoari dagokionez

- Hilabeteen izenak: bagil ‘ekaina’
- Asteko egunen izenak: eguen ‘osteguna’
- ei ‘omen’; bear ‘lana’; eroan ‘eraman’; ostu ‘lapurtu’; batu ‘bildu’...

Gurberbake 1e7

ZELAN? ESAN
Permisu (baimena) eskatuteko

Testua: Xabi Bilbao

Apur bet danatarik eiteko, gaur esakune mota batzuk ikusko duz (doguz).

PERMISU ESKATUTEKO

-Sartu leite?
-Ikusi leite hori?
-Koxil/koyu leite apur bet?

-Itxikostezu (itxiko dostezu) sártzen?
-Itxikoskuzue hori ikusten?
-Itxikotzezue señeri apur bet kóxten?

-Itxi / itxiostezu sártzen, mesedez.
-Itxioskuzue hori ikusten.
-Itxiotzezue señeri apur bet kóxten.

Erantzunek

-Bai, sartu lasai.
-Bai, zélan eztotzu(e)t itxiko ba?
-Bai gixonal/andra! Pregúntate bere!

-Eztakit ba, hoba itxédoten badozu(e) apur bet.
-Eztakit ba, gúrau dot ezpázare sártzen ointxe.
-Kóntuz gero! Ez sartu hona hórrekaz zapátakaz!
-Sartu hona orain? Pentza bérez!

ESKERRAK EMOTEKO

-Eskerrik asko.
-Eskértuten dotzu(e)t.
-Mesede handi ixen da: eskérrak emon ber (behar) dotzutez.
-Grazik zuk/zúok itxi doskuzu(e)la sártzen, ezpabere...!

Erantzunek

-Eztáu zéittik.
-Eztá ezer. Eztá hainbésterako.
-Eztá ber (behar) eskerrik.
-Kia! éate bere!

Adibidek

-Anton, biajen noa ta, itxikoztezu zure mákiñe éroten erretrátuk atárateko?
-Bai, éroixu lasai. Hortxe dau.
-Eskértuten dotzut, ze neure mákiñe eztakit non dekáten bere.
-Ezta ber eskerrik, baia gero átzera ekarri e?
-Ño! Ardau ederrá dekozue hemen gordeta! Zabaldu leite apur bet próbateko?
-E? Pentza bérez! Zúok dana osorik edan árten ezare lótuko!

BERBA BARRIK

koxi (koyu): hartu./ezpabere: bestela./itxédon: itxaron./grazik (-la): eskerrak, gaitzerdi.

akabukopunte@hotmail.com

Zuen hizkeraren gainean zeozer aipatu gura baduzue, zalantzaren bat edota proposamen bat baduzue... posta elektronikoa erabili gurekin harremanetan jartzeko



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58
31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Euskara ikasten dute

Zuriñe Zugazaga (Sopela)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?

—Txikitatik ikasi dut euskera,
baina unibertsitatera heldu nint-
zenean eta lanarekin batera utzi
nuen.

—Zein mailatan zaude?

—Iaz hasi nintzen euskaltegian
eta aurten bigarren mailan nago.

—Non ikasten duzu?

—Sopelako Udal Euskarategian,
baina Algortako Euskarategian ere
ikasi nuen.

—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?

—Nire etxean beste denek eus-
kara jakiteak. Txikitan moja
eskolara joan nintzen eta erde-
raz egin nuenez gainditu gabeko
asignatura da hori niretzat.

—Zer da gehien kostatzen
zaizuna?

—Nominalizazioa eta hitz egitea
batez ere.

—Orain arte ikasitakoa erabiltzen duzu?

—Nire etxean erabiltzen dut,
batez ere nire lehengusuaren
umeekin; hala ere oso gutxi era-
biltzen dut.

—Zelan definituko zenuke
euskara?

—Asko gustatzen zaidan hizkuntza da, baina nahiko zaila da gure artean hitz egitea, oro har gehiago landu behar dugu. ^m

Bizarra Lepoan Euskara Elkartea kinka larrian!

Hizkuntzaren alde lanean **aurrera** egin ahal izateko herritarren **laguntza** eskatzen ari da elkarteak

Getxoko Bizarra Lepoan Euskara Elkar-
teak urte mordoan darama euskararen alde
beharrean herrian, baina azkenaldian gau-
zak ez doaz ondo. Hori dela eta, aurrera
egin ahal izateko ezinbestekoa den guztion
laguntza eskatu du elkarteak. Bere helbu-
ruez eguna da, euskararen alde behar egi-
tea. Jakina denez, eta elkarte guztietan ger-
tatzen den legez, taldekide bakoitzaren
inplikazio maila ezberdina da; batzuek
diruz laguntzen dute; beste batzuek ekint-
za zehatzetan egiten dute behar eta azke-
nik, beste batzuek, laguntza iraunkorra
eskaintzen dute.

Gaur egun ez da erraza laguntza iraunkor hori eskaintzeko prest dagoenik aurkitzea; izan ere, azken urteotan, elkartetan musutruk lan egiten duen jendearen kopurua asko jaitsi da.

Elkarteak, urte hauetan zehar, asmo as-ko abian jartzea lortu du; eta horretarako egin behar izan duten lana ez da nolanahi-

koa izan. Baina orain gutxi dira behar horretan dihardutenak. Eta oraindik badira euskararen arloan lortu beharreko beste hainbat kontu. Horregatik, behar egiteko prest dauden kide berriak ezinbestekoak dira.

Hau dela eta, Bizarra Lepoan Euskara Elkartek egoeraren berri eman eta laguntza eskatu die bazkideei, eskutitz baten bidez. Astean ordu gutxi batzuk eskaintzea nahikoa izan daiteke elkarteak aurrera atera ahal izateko. Honela, literatura, kultura, kirol jarduerak, aisialdiak edota kudeaketa lanak gustoko baldin badituzu hemen duzu, irakurle, euskarari behar duen laguntza emateko aukera.

Beraz, laguntzeko prest zaudetenak
elkartarekin harremanetan jarri besterik
ez duzue. ^m

Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
Karitate kalea 1, 10. bulegoa. 94 491 43 57
bizarralepoan@euskalnet.net

Badator Korrika

Apirilaren 4an, arratsaldeko 18:30ean abiatuko da Korrika 13. Mauletik atera eta hamar egun geroago, hilaren 13an, Iruñean bukatuko da euskararen aldeko lasterketa hau.

Hamar egun horietan guztira 2.150 kilometro
 egingo ditu Korrikak eta hainbat herri zeharkatuko
 ditu. Aldi berean, aurten ere, 1991ean

sortu eta ordutik urtero egiten den

Korrika Kulturalaren edizio berri

bat jarriko da martxan. Ekimen
hauk berriak lortuz, alitaldi

eskainiko ditu Euskal Herri

osoan, otsail eta martxoan

zehir. Azkenik aipatu gure eskualdetik

apirilaren 9an pasatuko dela Korrika.

Uribe Kostako Euskara Zebitzuak zure zerbitzura

Getxo: 94 491 14 41 • **Leioa:** 94 400 80 44 • **Erandio:** 94 676 26 74 • **Berango:** 94 668 00 08 • **Gainerako herriak:** 94 676 26 74

AHOZ
 AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A
 AR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS
 DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS
 DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A
 DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ
 HO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR

AHOZ AHO IBILIKO GARA
 MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A
 AR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS
 DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS
 DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A
 AR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE

HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
UE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS
DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA
AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO
ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ
HO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
UE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA
AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ
HO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA
AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO
IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
ABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A
AR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO
ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ
HO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA
AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR AHOZ AHO
IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR
HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
UE HABLAR AHOZ AHO IBILIKO GARA
AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAR
HOZ AHO IBILIKO GARA
AMOS A DAR MUCHO QUE

GE+D
getxo euskalduntzeko hitzarmena



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Arrain zopa

betiko erara

Neguko hotzak kentzeko arrain zopa beroa bezalakorik ez dago. Hasteko *foumet* edo salda prestatu behar da. Ipin sutan eta uretan porrua, piper berdea, berakatz eta tomatea (honek kolorea emango dio), oliba olio apur bat eta arrain hondakinak: esaterako, sapo buru bat, edota kabratxo baten arantzak izan daitezke. Eduki hau sutan hiru ordu laurden. Bestetik, zartaginean tipula eta porrua ondo txikitua biguntzen jarri. Gero, ogi errea birrinduta bota. Hau guztia koñak apur batekin flanbeatuko dugu ondoren. Salda eginda dagoenean iragazi eta dena eltze batean nahastu. Gehitu aukeratu dugun arraina, zatitua eta arantzarik gabe. Irakin apur bat eta kitto! m

osagaiak

arraina • tipula • piper berdea • porrua
ogia • berakatz • tomatea • gatza • koñaka



itsaso arana / jolastoki-koa

10 aholku

adituaren itxurak egiteko

- 1 Priorat, Toro, Somontano eta Ribera de Duero beltzak eskatu. Rias Baixas, Rueda zuriak eskatu eta Chardonnays-ak kupelean fermentatuak.
- 2 Kaba hartu aperitiboan.
- 3 Etxean ate gardeneko ardo armairu klimatizatua eduki
- 4 Eskatu ardoa zuzenean bodegan.
- 5 Edozein ardotaberna berezietara joan, ardoa kopaka dastatzeko.
- 6 Jakin beltz galiziar interesgarrienak Ribera Sacra-koak direla.
- 7 Postrean Pedro Ximenez bat eskatu.
- 8 Rueda edo Rias Baixas bat eskatu, baina ez dadila izan azkeneko uztakoa (2 edo 3 urte, gehiago ez).
- 9 Brandya ardo beltzak edaten diren tenperaturan (18º) eskatu, kopa txikian.
- Gaiaren inguruko dauden agerkariak ezagutu.

Udondo jatetxea

Aukera ona Leioan




Argazkian, Ricardo Villate eta Mari Carmen Galbarriatu

Leioako jatetxe honek 60 urte inguru ditu eta herriko zaharrena ei da. Horrela azaldu digu behintzat Ricardo Villate ugazabak. “Eta ez hori bakarrik, eguneko bazkari gehien ematen dutenak gara”, diosku Villatek. Gainera, urtero briska txapelketak jokatzten dira Udondon. Andrés Bilbao ezagunaren lekukoa hartu zuen Ricardo Villatek orain lau urte, Leioako beste bi tabernatan egon ondoren. Sukaldean bere emazte Mª Carmen Galbarriatu eta Denis Peinado aritzen dira

buru-belarri. Domeketan itxita egoten den jatetxe hau eguerdiko ordu batean hasten da bazkariak ematen, eta egoskariak, bakailaoa pil-pilean, bildotsa, entsaladak eta etxeko frijituak dira bere berezitasunak. Eguneko menuaz gain, zapatuetan bazkari eta afari bereziak ere ematen dituzte Udondon. m

UDONDO / Lehendakari Agirre 2, Leioa
Eguneko menua: 6,60 euro
Zapatuan bazkariak: 11 euro
Zapatuan afariak: 17 euro
Telefonoa: 94 463 00 45

jakingehiago



Liburua > “Euskal Herriko ardoak”

Derrigorrezkoa, bikaina

Mikel Garaizabal Pildain gazteak ezin hobeto eta erraz ulertzeko moduan azaltzen ditu lan honetan ardoari buruzko oinarritzko ezagupenak: mahasgintza, ardo bakoitza zelan egiten dan, zelan dastatu behar diren... Ardoaren munduan lehenengo pausuak emateko gida paregabea osatu du enologoa eta aldi berean Galdakakoko Ostalaritza eskolan irakasle den Mikelek.

Bestetik, Euskal Herrian ditugun ardo guztiei buruzko argibideak aurkituko ditu irakurleak kolorezko liburu eder honetan: Irulegikoak, Nafarroakoak, Arabar Errioxakoak, txakolinak... Eduki beharreko liburua.

Eskaerak: Ardoxka Gastronomi Elkarteak
Berri Otxoa, 31 • 48230 Elorrio

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA

ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu

etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

erakusketak

antzerkia

dj.ak

ALGORTA

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa
48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31
bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN


Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaia
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

jateko



urdaitegia • frutadenda • elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T.: 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T.: 94 491 13 94

[horoskopoa]

URA

t

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Beste leku batzuetako pertsonekin harremanetan hasteko une aproposa da. Kontuz ibil zaitez norekin berba egiten duzun, zutaz baliatuko delako lanean gora egiteko. Arreta handiz zaindu diru kontuak, nahaste-borraste garaiak ezagutuko dituzu eta.

AITZURRA

t

(Martxoak 21 apirilak 19)
Komeniko litzazuke egoera zailen aurrean hotz mantentzea eta jarraera malgua edukitzea. Maite duzun jendeari opariak erosi gura badizkiezu, dirua gustura gasta dezakezu, ez zara damutuko eta.

GARIA

t

(Ekainak 19 uztailak 18)
Familiako batek zure maitasun kontuetan muturra sartuko du. Lan elkarrizketa baldin baduzu, ondo neurtu zure hitzak eta kontuz zure jarrerarekin. Diru kontuetan, ustekabe atsegin bat jaso dezakezu.

META

t

(Irailak 17 urriak 16)
Garai lasaia maitasun kontuetan. Behar-beharrezkoak diren gastuei aurre egin behar badiezu ez zara larritu behar. Lanean orain arte sasoi zailak bizi izan badituzu horiek bukatzeaz daude. Urduri eta kezkatuta ibiliko zara.

OTSOA

t

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Familiakoekin denbora gehiago pasatu beharko zenuke. Gurasoekin ika-mika asko eduki arren, uste duzun baino gehiago ulertzen zaituzte, eurak ere gazteak izan zirelako. Nekatuta zaude lanarengatik, kirola egin.

HOSTOA

t

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Hitz egin bikotekidearekin eta desagertuko dira zure arazoak. Garai ona da diru-kontuak konpontzeko. Gainera, daukazun ikasteko gogoak ate guztiak irekiko dizkizu zure lanean. Hori bai, gehiago mugitu beharko zenuke!

LASTOA

t

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Negarretik berrera pasatuko zara kon-turatu barik, zure ezegonkortasuna dela eta. Hala ere, bikotekidearekin duzun harremana sasoi onean dago. Ez gastatu diru larregi eta beharrezkoa denari soil-soilik erreparatu.

HAZIA

t

(Urriak 17 azaroak 15)
Maitasunerloan, komeni zaizun pertsona batek zure arreta mereziko du. Dirua irabazteko sortzen zaizkizun aukerak erabili egin behar dituzu. Lanpostua aldatu baduzu ez zaitez urduri jarri egoera berriaren aurrean.

ADARRA

t

(Otsailak 19 martxoak 20)
Agian irudituko zaizu zure bikotekideak ez dizula arrazoia ematen erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzunean. Bere iritzia ematen dizu soilik eta kontuan hartu beharko zenuke, baina jakin ezazu azken iritzia zurea dela. Gehiago zaindu zaitez.

EGUZKIA

t

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zure lanean berrikuntzen bila bazabilza lasai egon zaitezke, izango dira eta. Agian ez dira zure gustukoak izango. Sentitzen dugu baina inork ez du esan mundu honetan gauzak errazak zirenik. Maitasunean, abenturaren bat edo beste.

IRATZEA

t

(Abuztuak 18 irailak 16)
Lagunak alde izango dituzu eta eskatzen diezun guztia emango dizute. Arreta gehiago jarri zure gorputzean eta, nekatuta bazaude, atsedena hartu. Dituzun ideak onak dira, baina zure buruarengan ez duzu konfiantzarik.

NEGUA

t

(Azaroak 16 abenduak 20)
Ez larritu, gogoko duzun pertsona hori zuk uste duzun baino lehenago itzuliko baita. Bai ekonomian bai lanean igarotzen ari zaren bolada txar honetatik aterako zara. Eta lasai egon, ez duzulako gaixotasun larririk.

mungia
oKINDegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATU

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2.Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar, zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiei mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak

A	I	A		V	I	R	I	Z	O	Z
O	W	L	E	T		I	V	E	P	A
D		I	R	A		U		A		
	A	R	A		V	I	Z		O	
V	U	T	V	K	I	Z	I	K		
S		A	Z		E	T	I	G	E	
T	O		A	I	B	N	A	T	R	A
V	N	E	R	T		V	A	R	A	S
K	V	N	O	Z	I	G	V	L	O	A
N	A	U	G	I	A	I	Z		B	I



EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n egingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN



BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behe. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com

asmatu eta irabazi > afari bat



Nor da?

- Donostiar gazte eta ederra da
- Ospe handiko lehiaketa irabazi zuen behinola
- Egun telebistan dago aurkezle eta aktore lanak egiten

> Aurrekoaren erantzuna: Andoni Zubizarreta

> Irabazlea: * **Felix Barroso (Sopela)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki
Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf. erreserbak: 94 676 07 61

astelehenetan itxita

Bittor Egurrola

Getxo Futbol Taldea, 1927-28.

Hona hemen Getxo Futbol Taldeko hasiera-hasierako jokalaria. Taldea sortzeko Algortako zale batzuk Seco tabernan (gaur egun Boga-boga dena) elkartzen hasi ziren eta 1927ko maiatzean batzorde bat eratu zuten, bederatzi lagunek osatua, herri biler bat prestatzeko. Bilera hori ekainaren 9an, gaueko zortzi eta erdietan egin zen, Juan Bautista Zabala kaleko eskoletan eta 200 inguru lagun bildu ziren hara. Bertan, taldearen izena (Club Deportivo Guecho), hileroko kuotak, taldearen koloreak eta jokalaria aukeratzeko arduradunak erabaki ziren besteak beste. Hantxe bertan bileran zeuden pertsonarik gehienak, taldeko lehenengo bazkideak egin ziren (156 bazkide). Sei egun beranduago, ekainaren 15ean, gaueko bederatzi eta erdietan, batzordeak bilera batera deitu zituen jokalaria izango zirenak. Bilera horren aktarik ez dago eta, ondorioz, jokalarien izenik ere ez.

Garaiko egunkari batean, Getxok urriaren 9an Lutxanaren aurka jokatu zutela irakurri dugu, Ategorri futbol zelaian, goizeko hamar eta erdietan, arbitroa Campo jauna izen zelarik. Ez dago zehatz jakiterik baina beharbada hura izan zen Club Deportivo Guecho-ren lehenengo partidua. Hil bereko 30ean, Gobelaren aurka jokatu zuen Getxok. m

Argazkiko kideen izenak lortzen zinez saiatu gara, bai garaiko egunkariak irakurriz, bai laurogei urtetik gorako gure herriko hainbat laguni itaunduz. Baina alferrik izan da. Fernando Martinez Lerrak (Julia Mtnez. Lerraren neba eta 1927ko batzorkide baten semea dena) hiru jokalaririk ezagutu ditu, hauexek:

Zutunik: bigarrena, “Kotxe” / **Belauniko:** lehenengoa, Mariano Maguregi; laugarrena, “Negro” Ayestaran (?)


***Oharra: Bai Getxo Futbol Taldeak, baita UK aldizkariak ere eskertuko genuke jokalaririk hauek antzemateko laguntza. Bestetik irakurle, aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik bazenu, jarri zaitez mesedez UKrekin harremanetan: 94 491 13 37a**



Argazkia, Getxo Futbol Taldeak utzia

KIKE AMONARRIZ > umoregilea

“Bada bizitzarik heriotzaren aurretik?”



KIKE AMONARRIZ- Beti alde batetik bestera dabilen ipurterre tolosarra da Kike Amonarriz. 1961 urteko San Jeronimo egunean jaio zen (irailak 30). Euskal Filologia ikasi zuen, baina berak dioen bezala “titulua atera nuen”. Orain dela urte eta erdi ARGIA astekarian hasi zen lanean, batez ere sustapen alorrean, eta kolaborazioak ere egiten ditu hainbat komunikabidetarako.

- Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat?** Irekitasuna izan daiteke.
- Zure akats edo maniarik nabarmenena?** Jeloskorkeria.
- Zure haurtzaroko oroitzapen bat.** Tolosarra izanik, inauterietan ohetik txarangen soinua entzun, pijama eta guzti balkoira atera eta txarangak balkoi azpian ikustea, jendea saltoka mozorrotuta,... hori genetikoki itsatsi zaidan istorioa da.
- Zein da gehien miresten duzun pertsona?** Miretsi, asko, baina umore alorrean asko miresten dudan bat, agian gutxi ezagutzen dena, Coluche umoregile frantziarra da, guztiz sarkastikoa. Kanpaina presidentziala egin zuen baina oso ikuspegi diferente batetik. Badu esaldi bat niri beti oso sugerentea iruditzen zaidana: bada garaia geure buruari galde diezaiogun ea baden bizitzarik heriotzaren aurretik.
- Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?** Ez dut sentitu jarraitzaileak izan ditudanik. Sentitu dut jendea gustura sentitzen dela egiten duzun lanarekin, sintonia sortu dela eta bizitzaren aurreko ikuspegi bat partekatzen duela. Hala ere, telebistan lan egin nuenean gauzarik politena entzun nuen, gaixotasun larri bat zeukan pertsona batek esanda: gure saioak indarra ematen ziola, beste inon aurkitzen ez zuen bizipoza.
- Zein komentariok egin dizu kalte gehien?** Izan dira. Bizitza pertsonalean egokitu zaizkidan egoera zail batzuk. Hala ere, gehien gorrotatzen dudan gauza bat pertsonen handikeria da, eta besteak diferente gisa tratatzea.
- Abestirik gustukoena?** Garirenak oro har.
- Zein da zure libururik gogokoena?** Azken boladan gehien harritu nauena, *Lur bat haratago*, J. M. Irigoienena.
- Eta filme bat?** Aspaldi honetan oso gutxi ikusi ditut. Tarte gutxi harrapatzen ditut filmeak ikusteko, baina aspaldiko bat esatearren, *La vida de Brian*.
- Zein lelorekin egiten duzu bat?** Oso ikuspegi agnostiko batetik, arrazoi gutxi dituen bizitza hau *al limite* bizitzea.
- Zertan edo norengan sinesten duzu?** Ez naiz sinemen handien zalea, sinestu baino gehiago fiatu egiten naiz.
- Zerk ematen dizu beldurra?** Porrotak eta heriotzak. Heriotzak baino gehiago gaixotasun larririk izateak.
- Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?** Ingurukoek eta egiten ditudan lanak batez ere. m

AHOZ
 AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A
 AR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 IUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 IUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS
 DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A
 AR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ
 HO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 IUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 IUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK
 HOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE
 AHOZ AHO IBILIKO GARA
 MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A
 AR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS
 DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS
 DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A
 AR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 IUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 IUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 IUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS
 DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO
 ARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ
 HO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ
 HO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE
 ABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR
 IUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK AHOZ AHO
 BILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK
 HOZ AHO IBILIKO GARA VAMOS A DAR MUCHO
 UE HABLAK AHOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE HABLAK
 HOZ AHO IBILIKO GARA
 AMOS A DAR MUCHO QUE